

ELKARRIZKETA: LORE ERRIONDO • ESPERIENTZIA: MOSKETARI NESKAK •
GALDEIDAZUE: JOSU SIERRA • AGERRIA, ZUBEROATIK ZUBIA ERAIKI NAHIAN
• ATZEKO ATETIK: JUAN LUIS ZABALA

hh
hik hasi

165

4 EURO • 2012KO OTSAILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



GAIA

Kalitatea Haur Eskoletan

4. ekar ilustrazio eta ipuin lehiaketara

oinarriak: www.elkar.com-en
eta ekar sareko liburu denda
guztietan



aurkibidea



8
gaia

KALITATEA HAUR ESKOLETAN

Haur Eskolak hartzen ditu haurrak eta familiak lehen aldiz eskolan, hark egiten die harrera eskola munduan. Eskola hori kalitatezkoa izan dadin, kontuan zer hartu behar diren eta Haur Eskola nola antolatu behar den aztertu dira.



16
elkarrizketa

LORE ERRIONDO

UEU, euskal unibertsitatea edota euskal curriculuma garatzeko eta gauzatzeko lanean buru-belarri ibili da Erriondo urte askoan, eta langintza guztietan, administrazioaren trabekin topo egin du.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

KALITATEA HAUR ESKOLETAN

16 elkarrizketa

LORE ERRIONDO. EHUko irakaslea.

24 esperientziak

Zergatik ez daude mosketari neskak?

Idoia Carricas

26 galdeidazue

Hainbat uste finkatu dira elebitasunaren gainean. Horietatik zenbat dira egiazko eta zenbat mito?

Josu Sierra

29 berriak

36 nora joango gara?

AGERRIA, Zuberoatik zubia eraiki nahian.

38 Atzeko atetik

Juan Luis Zabala. Kazetaria eta idazlea.

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPIZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urroza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Hik Hasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2012-01-26). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Euskarak merezi du,
hezitzaileentzat ona da
eta HIK HASIk behar du.

Harpidetu eta
HIK HASI egitasmoa
bermatu



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitez!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitaratzen ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

otsaila

Haur-eskolak, etorkizuneko inbertsioa



Haur-eskolan egoki egindako lanak aurreragoko hezkuntza-aldietan onura zuzena izango du.

“Haureskoletako hezitzaileen lana, txikiekin izan arren ez da txikian pentsatzeko; aitzitik, handian pentsatzeko lana da”.

Sarritan hezkuntza arduradunek hartutako erabakiak eta eguneroko jardunak beste bide batetik badoaz ere, inork gutxi ipin dezake zalantzan bizitzako lehen urteak gutako bakoitzarengan izan duten garrantzia eta utzi duten marka.

Nazioartean, eta baita hemen ere, egin diren ikerketek argi erakutsi dute bizitzako lehen sei urteak –eta horien artean, batez ere lehen hiruek–, hauraren garapenean erabakiorrak direla. Eta erabakiorrak dira garapeneko atal guztietan: ama hizkuntza eta beste hizkuntzen jabekuntzan, garapen kognitiboan, nortasunaren garapenean, sozializazioan, norbere buruaren ezagutzan eta abar. Ondorioz, adin horretan egiten denak, edo egiten ez denak, arrastoa utziko du bizi osorako.

Haurren ongizatea, nola ez, funtsezkoa izango da. Baina ez etxean soi-

lik, baita eskolan ere. Kalitateko haur-eskola batek bereziki zaindu beharko luke bertan dauden haur guztien, eta haur bakoitzaren, ongizatea. Izan ere, haurra inguratzen duenarekin eta dutenekin lasai badago, ziur sentitzen bada, orduan bermatuko baita haurrak berez duen esplorazio sena, eta jakin badakigu edozein ezagutzaren oinarria dela esplorazio hori. Ongizatearen oinarrietako bat den ziurtasun hori izango da, bestalde, haurrak berez, senez, dakartzan gaitasunak garatzeko bermerik egokiena.

Ikerketek eta adituek atera dituzten ondorioak oso kontuan izan beharko lirakeke, zientziako gainerako alorretan egiten den gisan. Gaur egun dakiguna jakinda, gutxienez, haurra beste era batean, modu berri batean, begiratzeko saiakera egin beharko genuke: gaitasunez beterik dagoen pertsona gisa, horiek guztiak garatzeko inguru eta esperientzia egokiak eskainiko dizkion eta ziurtasuna emango dion heldu bat behar duen pertsona.

Haurra, oso txikia izanik ere, kapaz den pertsona gisa ikusten hasten garenean, berehala ohartuko gara adin hori aukera paregabea dela gaur egun hezkuntza munduan kezkatzen gaituzten hainbat gaitan eragiteko. Oso txikiak izanda ere, garrantzi handia eman behar zaiola haur horiekin egiten den lanari.

Irakaspen horietatik ondorioak ateratzeko tenorea da, orain. Eta denen artean, ondorio behinena, etapa hori bereziki mimatu beharreko eskolaldia dela da. Haur-eskoletan tentuz eta egoki aplikatutako hezkuntza politikek emango dituzte beren fruituak; zaila goa baita, betiere, desegoki egindako gauzak, edo garaian ez egin izanak, konpontzea.

Egunerokoak erakusten digu, ordea, zein urrun gauden, oraindik, ulertzeko errazak diren jarduteko modu horietatik. Horregatik, sekulako beldurra ematen du zenbaitetan Haur-eskolen lanarekiko eta izatearekiko jokatzen den arinkeriak.

kronika

Espainiako Gobernuak aisialdiko begirale eta zuzendarien formazioari dagokion legea aldatu du. Lege berriaren arabera, Hezkuntza eta Lan sailaren mende geratuko dira aisialdiko dinamizatzaileen eta adituen trebakuntza. Orain, legea Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eremuetarako egokitzen hasi da Eusko Jaurlaritzan. Lege aldaketak kezka sortu du hamarkadetan arlo horretan diharduten euskal eskolengan eta taldeengan. Besteak beste, orain arteko begirale eta zuzendarien trebakuntza eredu babesteko eta aisialdiko euskal eskolen nortasuna errespetatzeko eskatu diote Eusko Jaurlaritzari. Izan ere, aisialdiko eskolen arabera, heziketa ez-formalari dagokion titulu bat lortzeko tramite hutsaren gainera, aisialdiko taldeen atzetik, urtetan pilotutako talde-lan eta lan boluntario ugari baitago aisialdiko mugimendu sare handian.



Arlo estrategikoa dela-eta gomendioak Jaurlaritzari

Euskadiko Eskola Kontseiluak 2008-2010 bitartean EAEko hezkuntza-erengorari buruzko txostena aurkeztu du.

Oro har, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntza sistemaren egoera ona dela ondorioztatu du azterketak, ikaste emaitzetan ikusten dela sistemak “ekitate” sustatzen duela. Hala ere, hainbat gomendio eta eskaera egin ditu.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskatu dio, adibidez, azter dezala lanpostu publikoen alorrean zein behar dauden eta behar horiei aurre egiteko baliabideak jar ditzala. Era berean, “eskaintza publikorik ez duten udalerrietan ikastetxe berriak sortzeko aukera gogoan izateko” aholkatu dio.

Haurreskolak Partzuergoari, bere aldetik, lanpostuak ugaritzeko ahalegi-

na indartzeko eskatu dio.

Hizkuntzak ikasketetarako euskarri gisa duen betebeharrari buruzko ikerketa eskatu dio Jaurlaritzari. Izan ere, kontseiluak kezka agertu du B eta D ereduak “ikasleen ehuneko handi batek euskaraz hizkuntza gaitasun urria” agertu duelako. Eta horrek, euskaraz irakasten zaizkien arloetako irakaskuntzan eragin dezakeela ohartarazi du txostenean. Horren haritik, Hezkuntza Marko Hirueledunaren ezarpenean, egoera soziolinguistikoren eta ebaluazio emaitzen arabera ezar dezan zein hizkuntzak behar duen lehentasunezkoa eskatu du.

Hezkuntza eragileentzako ere izan du eskaerarik: herritarren hizkuntza gaitasunen auzia ikuspegi zientifikotik eta akordioak egiteko asmoarekin azter dezatela.

Bizikidetzarako planari ere begiratu diote txostenean: haren politizazioa aipatzeko, hain zuzen.

Bizikidetzaren bultzatzeko ituna

Hezkuntzan eta bakegintzan ari diren hogeit hamar eragilek giza eskubideak errespetatzeko eta bizikidetzaren indartzeko agiri bat sinatu dute. Era berean, ikasleei “orainaren eta iraganaren egiazko ezagutza” eman behar zaiela gaineratu dute. Gehiengo sindikalak, ordea, ez du bat egin egitasmoarekin.

"Kultur komunitatearen eskubideen aldarrikape-
nak berarekin dakar, nahitaez, gizarte politikoa-
ren berreskurapena".

Tomás Urzainki



D ereduaren abantailak zabalduz Nafarroan

Gutxienez bi kanpaina abiatu dira Nafarroan hastear den matrikulazio kanpainen gurasoek D ereduaren alde egin dezaten.

Lotu irakaskuntza berdeari mezua zabaltzen ari dira Nafarroako euskarazko irakaskuntzako eragileak, Nafarroako Ikastolen elkarteak, Nafarroako Ikastetxeetako Zuzendarien Elkarteak, Sortzen-Ikaskatuak, Topagunea, Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkarteak eta Euskara Kultur Elkargoak. "Hizkuntza eta kulturantzatasuna zaintzea ere bada ekologia" aipatuz, D ereduaren alde egiteko eskatu diete gurasoei.

Bestalde, eskola D letraren forma duen dordoka ikur hartu dute, Nafarroako 16 udalek eta hainbat mankomunitatek eta patronatuk. Kanpainak animaliak dituen ezaugarri berak dituelako aukeratu dute irudizat: "egonkorta-

suna, irmotasuna, segurtasuna, esperientzia eta lasaitasuna". Sustatzaileen esanetan, "D ereduak Nafarroako berezko bi hizkuntzak, euskara eta gaztelania, ikasteko aukera ematen du, eta 30 urteko esperientzia aintzat hartuta, haren kalitatea bermatuta dagoela" diote.

Iribas kontseilariak, bere aldetik, 2011ko balantzea egin zuenean, ikasleek gaztelania ikastea eta ulermen arazorik ez izatea oinarritzat delako esan zuen. Bere erabakiz, gainera, aurrerantzean ikastetxeek bereizi egin beharko dituzte euskara eta gaztelania paper eta agirietan.

Nafar askoren ahotsa altxatu da, ordea, euskarazko hezkuntzaren alde. Iruñako guraso talde bat, esaterako, kalera atera zen euskarazko Haur-eskola bat eskatzeko.

Ingelesa eta kirolen irakaskuntza

Nafarroako gobernuak kirolen irakaskuntza arautzeko Foru dekretua argitaratu du. Hala, hainbat kirolerako kirolariak zuzentzeko, prestatzeko eta bideratzeko kirol teknikari tituluak lortu ahal izateko Lanbide Heziketako bigradu eskainiko dituzte: bata Erdi-mailakoa eta bestea Goi-mailakoa.

Bestalde, Lehen Hezkuntzako 5. mailako 1.950 ikasleek **English Week** hizkuntza murgiltzeko programan parte hartzeko aukera izango dute.

Lapurdin hiru urtera arteko zerbitzu euskalduna eskaintzen duen Luma haurtzaindegia euskaldunen sarea hedatze bidean da. Horretarako, orain arte Baionan eta Ziburun dituen haurtzaindegiei Hendaian egingo duten berria gehituko zaio, eta Ziburun duten haurtzaindegia handituko dute. Euskararen Erakunde Publikoak haurtzaindegietarako ziurtagiri bat atera du, eta horrek handitu egin du euskarazko zerbitzuen gaineko konfiantza. Bestalde, gainerako haurtzaindegiek duten toki eskasiaren ondorioz, hainbat gurasorentzat hezkuntza euskaldunerako ataria bihurtzen dira Lumako haurtzaindegia. Izan ere, gehienek, ondoren ikastolan jarraitzen dute, eta horrek eragin zuzena du haur horiek gero euskaraz mintzatzen jarraitzearekin.

Estatu Frantseseko legeriak 0-3 urte arteko eskaintzaren ehuneko bat frantsesez izatea derrigortzen du. Hori dela eta, frantsesez jardungo duen haurtzaindegia zabaltzeko arte itxaron beharko dute Hendaian Lumako haurtzaindegia euskalduna zabaltzeko.

GAIA

Kalitatea Haur-Eskoletan





Jardunaldiez bi hitz

Udako Hik Hasi Topaketak antolatzeaz gain, azken urteetan Haur Hezkuntzari eta, bereziki, 0-3 zikloari begirako jardunaldiak antolatzen ere ari da Hik Hasi.

Gai hauek jorratu dira orain arte: *Psikomotrizitate praktika Haur Hezkuntzan: Pedagogia koherente baten bila*; Emmi Pikler: *haurraren autonomia eta Haur Txikien mugimenduaren behaketa*. Sorta horri gehitu zaio egindako azkena, *Kalitatea Haur Eskoletan*.

Aurreko jardunaldietan bezala, azken horietan ere oso ona izan da jendearen erantzuna, ziklo horretan hezten dabilen jendeak sensibilitate handia erakutsi baitu prestakuntzarako, haurren garapenean hain garrantzitsua eta erabakigarria den aldi horretan.

Hurrengo orrialdeotan, *Kalitatea Haur Eskoletan* jardunaldietan jorratutako hainbat arlo aurkituko dituzu.

Haur Eskolak hartzen ditu haurrak eta familiak lehen aldiz eskolan, hark egiten die harrera eskola munduan. Eskola hori kalitatezkoa izan dadin –ongizatearekin lotuta, *kalitate* hitzaren zentzu zabalenean eta sakonean–, kontuan zer hartu behar diren eta Haur Eskola nola antolatu behar den aztertu nahi genituen.

Jardunaldietan azaldutako ideiak bat datoz zentzu askotan: Haur Eskolak kultura-eskola izan behar du, parte hartzeko eskola, eskola irekia izan behar du, demokratikoa, partaide guztien iritzia jasoko duena; familiak zer esana izango dute eskola horretan, eta entzun egingo zaie. Kalitatezko Haur Eskolan, elkarrizketak beti ongi etorria izan behar luke, baita eztabaidak eta hitz egiteko aukerak ere.

Jardunaldietan, *Berba batzuk haurraren ongizateaz eskolan* hitzaldia eskaini zuten Alexander Barandiaranek eta Iñaki Larreak. Biak Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) irakasleak dira. Unibertsitatean, Hezkuntza-gradua irakasteaz gain, aholkularitzan eta ikerketan jarduten dute. 0-3 urte bitarteko aldi ikerketan zegoen hutsunea ikusirik, HAZITEGI izeneko proiektua abiarazi zuten duela hamar urte. Urte horietan, munduan egiten diren ikerketak aztertzen eta ezagutzak garatzen aritu dira. Horien guztien ondorioak izan ziren, nolabait, kalitateari buruzko jardunaldian aurkeztu zituztenak. Hitzaldian, kalitatearen adierazle behinena haurraren ongizatea dela adierazi zuten. Era berean, azaldutakoa sakonago jasotzen duten bi liburu aurkeztu zituzten, argitaratu berriak: *Haurraren ongizatea I: Oinarri psikopedagogikoak* eta *Haurraren ongizatea II: Hezkuntza proposamenak*.

gogikoak eta Haurraren ongizatea II: Hezkuntza proposamenak.

Horren ondoren, Herrialde Katalanetatik etorritako bi emakumek, Elia Martinezek eta Rosa Ferrerrek, beraiek zuzentzen dituzten San Cugateko Cavall Fort eta Sant Adrià de Besoseko Josep Miquel Céspedes haur eskoletako proiektuak aurkeztu zituzten. Haurtzaroaren ikuskera aldatu beharraz, eskola bizitzeko leku bihurtu beharraz, hezitzaileen egin beharraz, familien parte-hartzeaz, talde-lanaz, egunerokotasunaren garrantziaz eta horiek guztiak ahalbidetzeko eta errazteko espazioen eta denboren antolaketaz aritu ziren, *Bizi eta ikasi haur txiki* kin hitzaldian.

Eta, azkenik, Txusma Azkonak, Lizarrako Arieta Haur Eskolako zuzendariak, *Kalitate eredu proposamena 0-3 urte bitarteko eskoletarako* lana aurkeztu zuen. Lan hori *Nafarroako 0-3 plataforman* landu eta osatu dute. *Kalitate* kontzeptua hezkuntzan ere gehien erabiltzen diren kontzeptuetako bat dela argitu zuen. Aurkeztu zuen dokumentua gidoi bat da gure haur eskolen kasuan, nahiz eta ratioekin, langileen lan- eta ekonomia-baldintzekin, eskoletako espazioen baldintzekin, zikloaren zatiketarekin eta abarrekin zailtasunak dauden. Gidaren helburua, zailtasunak zailtasun, gure ikastetxeak jada kalitatezkoak direla edo aipatzen diren hobekuntzaren bidean daudela ziurtatzea da. Dokumentua ez duzue, ordea, orrialde horietan aurkituko. Hausnarketarako eta aplikatzeko tresna ugari dituen, argitalpen zabalago baten zain geratuko da. Saiatuko gara horiek denak lehenbailehen jartzen zuen esku.

G



Kalitatea Haur-Eskoletan

Berba batzuk haurraren ongizateaz eskolan

Haur-Eskola: garapen-testuingurua

Eskola batean dauden haurrek duten ongizatea kalitatearen adierazle ona da. Kalitateak, beraz, haurren ongizatea izan beharko luke helburu.

Gizakiaren garapena aztertzerakoan, aldi garrantzitsuena 0-6 urteko aldia da, eta, horren barruan, 0-3 urteko adinartea. Eta baieztapen horretan adostasun handia dago, indarra bizitzako lehen sei hilabeteetan jarri behar dela esaten duen ideiarengandik inguruan dagoen adinakoa. Izan ere, bizitzako aldi hori da aldaketetarako kritikoena.

Horren arabera, haurraren garapenari era polarizatu batean begiratuta, aldi horretan gertatutakoaren eta bizitakoaren arabera, haurraren garapenak alde positiborantz edo alde negatiborantz jo dezake.

Haurrak, berez, jaiotzetik, gaitasun batzuk dakartza. Gaitasun horiek genetikoki ekartzen ditu, eta mendez mende, belaunaldiz belaunaldi transmititzen dira. Gaitasun horiek gizakiak bizirauteko izan duen estrategia bat dira. Beste animaliek beste estrategia batzuk dituzte bizirauteko, gizakiok gureak ditugu, eta gaitasun horiek berdinak dira bai Euskal Herrian eta baita munduko beste edozein herritan ere.

Gaitasun horiek, ordea, potentzialak dira: garapen-testuinguru bat behar dute gauzatzeko. Testuinguru hori da, hain zuzen, mendeetan zehar aldatuz joan dena, eta munduko herri batetik



bestera aldatzen dena. Garapen-testuinguruaren aldaketa horretan, zeri-kusi handia du kulturak. Ikuspegi horretatik begiratuta, Haur Eskola garapen-testuinguru berri bat da, lehen ez zegoena eta orain badagoena.

Beraz, Haur Eskola garapen-testuinguru gisa hartu beharko genuke. Abiapuntua hori izanik, haurrari dituen gaitasunak garatzeko aukera emango liokeen testuinguru horrek nolakoa izan beharko lukeen aztertzea izan beharko genuke helburu.

Haur Eskola modu horretara hartzeak puskaketa dakar, eskola, haurra ikastera doan lekua dela zioen pentsamendurekin. Izan ere –eta hemen dator berrikuntza–, Haur Eskola ikasteko lekua baino haurrak dituen gaitasunak sustatzeko garapen-testuingurua litza-

teke. Testuinguru horretan, dudarik gabe, haurrak, ikasi, ikasten du, eta bizitza osoan ikasiko du, gainera. Aldea, baina, haurrak ikasi behar duenaren eta garatu behar duenaren artean dago. Egin beharreko bereizketa garrantzitsu bat dago hor.

Haurrak genetikoki dituen gaitasunak garatzeko, testuinguru bat behar du. Testuinguru hori, noski, helduak jarri behar du. Galdera litzateke, beraz, helduok zer testuinguru jartzen diogun garatzeko. Galdera hori funtsezkoa da: zer testuinguru eskaintzen diogun kontuan hartuta, haurrak dituen gaitasunak osasuntsu garatuko ditu, positiborantz egiten badu; eta modu ez osasuntsuan, negatiborantz egiten badu.

Beraz, kalitatezko eskolak bermatuko du garapen osasuntsu hori.



Haurraren berezko hiru gaitasun handiak

Beldurra da haurrak duen gaitasun horietako bat, oso gaitasun atsegina ez izan arren. Beldurra berezko gaitasuna bada, erabakigarria izango da, beraz, nola kudeatzen den.

Esaterako, haurra jolasten ari denean, esploratzen ari da. Beldurra ongi kudeatu badu, haurra emozionalki baretuta egongo da, eta, horren ondorioz, errazago eutsiko dio arretari. Hortaz -eta hau printzipio bat da-, arretari eusteko, haurrak baretasun emozionala izan behar du, eta orduan soilik gertatuko da kalitatezko esplorazioa.

Beldurra oso lotuta dago atxikimenduari, atxikimendu seguruarekin. Azken urteotan egin diren ikerketa guztiek argi erakutsi dute atxikimendu segurua duten haurrek garapen osasuntsua izateko aukera gehiago dituztela. Haurrak heldu bat, heldu esanguratsu bat, behar du bere behar fisiologikoak, psikikoak, psikologikoak eta afektiboak asetzeko eta seguru sentitzeko, eta horixe da arrazoia. Atxikimendu segurua badu, edozer gauza gertatzen zaiola ere, konfiantza izango du. Horrek, gainera, zirikusi zuzena du beldurraren jokabidearekin, helduak haurrak sentitzen dituen beldurra eta segurtasun eza desaktibatu egingo baititu, eta, horren ondorioz, baretasun emozionalera eramango baitu. Konfiantza horren babesean lasai egongo da, ingurua, bestea edo bere burua esploratzeko. Konfiantza hori konfiantza inkontziente bat da.

Haurrak lotura behar du helduarekin, eta nahikoa du heldu bat. Lotura horretan, haurrak, bere aldetik, seinaleak jartzen ditu. Seinale horietako bat negarra da. Haurrak negar egiten du,

heldua gertu izateko, heldua gerturatzeke.

Hauk dira beste seinale batzuk: protesta, irribarrea, ahots-zaratak, hitzezko adierazpenak, atzamarrekin objektuak eta pertsonak seinalatzea, eskuak zabaltzea, laguntza eskatzea, hurbiltzea, oratzea, objektuak eta hitzezko jolasak partekatzea, gertakari baten inguruko azalpena eskatzea, berrespena, kontaktu fisikoa eta ikus-kontaktua, geldirik egotea, probokatzeta, eta abar. Haurrak seinale bat ematen duenean, helduaren erantzuna behar du, eta horren arabera izango da atxikimendu segurua. Atxikimendu seguruak garapen kognitibo handiagorara eramango du, garapen sozial handiagorara. Atxikimendu segurua lehenengo landu behar den zerbait da, garatu beharrekoa, zutabea da. Lehenengo lotura horiek, garrantzitsuenak, familian egiten dira, amarekin, gehienetan. Horien ondoren egiten diren loturak eskolakoak dira, eta bigarren lotura horiek haurrak gero eta txikiagoak direla egiten dira. Horregatik, berebiziko garrantzia du atxikimenduari bikoizketa egiteak. Familiarekin lan egin behar dugu, familiarekin hitz egin behar dugu, transferentzia hori nola egingo dugun zehazteko. Batek baimena eman behar dio besteari, eta haurrak ikusi behar du, gurasoak fidatzekoak diren bezala, hezitzaileak ere fidatzekoak direla.

Ildo horretan, profesionalen jarraitutasuna oso garrantzitsua da. Haurrak lehen sei hilabeteetan edo lehen urtean garatzen du lotura profesionalarekin. Beraz, oso garrantzitsua litzateke, gutxienez, bi urtean edo ziklo osoan profesional berarekin egotea. Lotura esanguratsuak seguruak izango dira, haurrak eginiko seinaleei helduak egoki

erantzuten badie. Eta testuinguruak nola erantzun behar die haurrak ekarri dituen erreminta horiei guztiei? Sentikortasunez.

Sentikortasun kontzeptu horretan, helduaren erantzuna biltzen da. Haurrak igortzen dituen seinale horiei behatzea litzateke sentikortasuna, eta horiek egoki interpretatzea eta erantzun egokia ematea.

Duela pare bat urtetik hona, HAZITEGI sentikortasuna garatzeko programa bat garatzen ari da. Programaren helburua heldua haurrak egiten dituen seinale horietaz konturatzeta da, horiei beha diezaien eta egoki erantzun diezaien.

Lehenik eta behin, helduak sentikorra izan behar du, seinale horiei behatzen jakin behar du. Haur Eskolan, hainbeste haur izanda, sarri, zaila izaten da behaketa hori egitea. Baina, ohikoan egiten denarekin alderatuta, hainbat hobekuntza egin daitezke. Hobekuntza horien artean, lehena prest egotea eta behatzea da. Oso garrantzitsua da hezitzailea ere seguru eta ongi egotea, haurrak gaitasun genetikoa baitu egoera emozionalerantz antzemateko: hezitzailea urduri badago, ez badu segurtasunik, horrek guztiak eragin negatiboa izango du haurraren gain.

Funtsezkoa da, beraz, Haur Hezikuntzako langileen lan-baldintzak onak izatea, besteak beste.

Ratioak eta haurrak eskolan egiten duen denborak ere eragina dute. Ratioak desegokiak badira eta eskola-orduak gehiegi badira, eragin negatiboa sortzen dute.

Bestalde, garrantzitsua da haurraren hitz egitea. Batzuetan, haurrak ez du oraindik gaitasunik bizi duen esperientzia hitzez adierazteko. Hezitzaileak eman beharko lioke. Elkarrekin,

Kalitatea Haur-Eskoletan

beraz, hitzezko komunikazioa eta hizik gabekoa izango da, bietakoa.

Bestalde, beste edozeren aurretik haurren segurtasuna lehenetsi beharko litzateke. Haurra seguru sentitzen ez denean, seinaleak bidaliz adieraziko du.

Elikatzeko, garbitzeko eta atsedean hartzeko uneak oso une garrantzitsuak dira, haurren eta helduaren arteko harremana garatzeko. Une intimo horietan, gorputzen arteko kontaktua funtsezkoa da, harreman esanguratsuak eraikitzeko. Gainera, haurren erritmo biologikoak errespetatzeak ere garrantzi handia du.

Esplorazioa, haurren bigarren gaitasuna

Mundua ezagutzeko, mundua esploratzeko, bere burua esploratzeko eta ezagutzeko duen gaitasuna da.

Haurrak seinaleen bidez adieraziko digu esploratzen duen ala ez duen, horrekin ongizatea lortzen duen ala ez, eta abar.

Esplorazioaren bidez, haurrak informazioa eskuratzen du; umea ikasten ari da, beraz. Esplorazio-jokabide hori aktibatuta dagoenean, eta haurrak inguruko mundua ezagutzeko interesa duenean, orduan gauzatzen da ikasketa. Ondorioz, garapen kognitiboa, motorra eta abar sustatzen dira. Esplorazioa ondorengo ekintza hauetan ikus dezakegu: objektu berri batera hurbiltzen denean, esploratzeko objektu hori eskuratzen duenean, objektua manipulatzeko duenean eta hari behatzen dionean, eta gauza bera egiten duenean bere gorputzarekin edo bere gorputz atalekin.

Esplorazioak, era berean, hainbat seinale hartzen ditu, esate baterako:

imitazioa, behin eta berriro gauza bera egiten saiatzea, behaketa, objektuak gordetzea, objektuak ateratzea, objektuak desagerraraztea eta agerraraztea, abestea, salto egitea, dantza egitea, erronkak (igo, jaitsi), mugimenaren arlo guztia, noraezean ibiltzea eta aspertzeta. Haurrak zerbait gehiago behar duela adierazten dute azken bi seinale horiek: izan daiteke memento jakin bateko segurtasuna edo izan daiteke beste zerbait esploratzeko beharra duela, gelan edo testuinguru horretan dauden elementuek ez dutelako jada haren arreta bereganatzen. Beraz, kontuan hartzeko beste seinale batzuk dira.

Esplorazioaren ondorioz, aurkikuntza edo aurkikuntza txikiak emozioak sortzen dituzten ekintzak dira, eta, horien ondorioz, haurrak aurreko espresioaren bidez edo ahoz-kotasunaren bidez plazara dezake sentitzen duen hori.

Haurren baretasun emozionala garrantzitsua da esplorazioan ere. Haurrak, neurri batean behintzat, seguru egon behar du, esplorazioa kalitatezkoa izan dadin.

Azter dezagun beldurraren, atxikimenduaren eta esplorazioaren arteko harremana. Haurraren beldurra pizten denean, haurrak bi bide har ditzake: batetik, esploratzera joan daiteke, edo esploratzen jarrai dezake, baina nahikoa segurtasun beharko luke horretarako; bestetik, atxikimendu-jokabideak aktiba ditzake, negar egitea, amarengana hurbiltzea edo beste edozein atxikimendu-jokabide. Interesgarriena esplorazioa gailentzea litzateke; hau da, lehia horretan, beldurra baino handiagoa izatea esploraziorako jakinmina.

Hori gerta dadin, erabakigarria da

testuinguru sentikorra izatea. Kasu horretan, sentikor izatea haurra lasaitzea eta esplorazio-jokabidea aktibatzea bideratzea litzateke. Horretarako, haurrari elementu erakargarriak jartzea komeni zaigu, eta esplorazio-jokabidea ahalik eta gehien aktibatzea. Komeni da haurrari baretasun emozionala bermatzea, ziurtasuna eskaintzea, hortik esploratzera joan dadin eta esplorazio hori kalitatezkoa izan dadin. Azken batean, haurrak esplorazio horren kalitatearen arabera garapena izango du: esploratzen baldin badu, haur horrek modu esanguratsuan garatuko ditu alderdi motorra eta kognitiboa, eta, gainera, ikasi egingo du. Horrekin batera, berdinkideekin, gainerako haurrekin, harremanak eraikitzeko joera handiagoa izango du. Hortaz, esplorazioa edo mundua ezagutzeko gaitasuna zaintzeko, beharrezkoa da sentikortasuna; hau da, haurrak igortzen dituen seinale horiei erantzun egokia ematea. Alor horretan, eta imitazioa sustatze aldera, oso garrantzitsua da memento jakin batzuetan adin-aniztasuna bultzatzea.

Esplorazioaren gaitasunari erantzun egokia emateko, garrantzitsua da elementu batzuk kontuan izatea: haurra protagonista izatea, materiala, testuinguru aproposa, espazio egokia eskaintzea; baina, gero, haurra utzi egin behar da. Horren ondorioz, eskolaren egin behar klasikoa, ikastea, bermatu egingo da, eta, aldi berean, esplorazioa baldin badago, ongizatearen adierazle izango da hori. Izan ere, haur hori seguru dagoela adieraziko luke horrek, ondo dagoela, eta, hortaz, esploratzen ari dela. Hori guztia bermatzeko, garrantzitsua da beldur-jokabideak aurreikustea, kontuan hartuta zenbaitetan



helduok bultzatzen dugula beldur-jokabideen aktibazioa eta, beste zenbaitetan, agian, ez diogula behar bezala aurrea hartzen. Interesgarria litzateke beldur-jokabide horiek desaktibatzearen alde egitea; haurra errespetatzea, haren interesak eta egiten ari dena kontuan hartzea; metodologia aberatsa, erakargarritasuna bermatzeko, orduan aktibatuko baita haurraren esplorazio-gaitasuna; haurraren interesa piztuta baldin badago, ia ziurtatuta dago hezitzailearen lana, eta lanaren egokitasunaren adierazlea da, beraz.

Jarrera sentikorren aurkakoa jarrera sarkorra da, eta saihesten saiatu behar da. Askotan, haurri egiten utzi beharrean, guk geuk egiten dugu haren orde. Horrela jokatzuz, ez dugu haurraren autonomia bultzatuko.

Espazioak garrantzi handia du, eta, horregatik, esploratzeko objektu eta toki aberatsak eskaini behar zaizkio haurri. Gainera, haurri lasaitzeko, bakarrik egoteko eta atsedean hartzeko lekuak ziurtatu beharko litzaizkioke. Izan ere, haurrak esplorazioaren bidez eskuratzen duen informazio hori guztia prozesatu egin behar du, eta atsedean behar du asimilatzen.

Testuinguruak, gainera, adin-aniztasuna bultzatu behar du, eskuragarri-

tasuna eta autonomia.

Kanpoko testuingurua ere bereziki zaindu beharrekoa da. Adibidez, haurrek kanpoan egiten duten denbora aztertu egin beharko litzateke, gehiengotan gutxi izaten baita.

Beraz, haurraren ongizatea helburu duen eskolak, kalitatea helburu duenak, haurraren segurtasuna bermatu behar du lehenik; gero, material aproposa eskaini behar dio, erakargarria, eta, hori bermatuz gero, egina egongo da hezitzailearen lana.

Haurrak beste hurrekin harremanak eraikitzeko duen gaitasuna

Haurrak berezko baliabide batzuk dauzka, beste hurrekin harremanetan jartzeko. Baliabide horietako batzuk hauek dira: afektuzko adierazpenak, alde batetik bestera mugitzea, sorbaldak altxatzea, beste haur bati mugak jartzea, eskutik hartzea, norberak bere burua lurrera botatzea, kooperazio-jokabideak, eskaerak, batez ere objektuekin lotutako eskaintzak, egon daitezkeen erasoak, harrapaketak, mehatxuak, elkarrizketak ahoz eta keinu bitartez, besarkadak, musuak, nahas-mendua, imitazioa, ikus-kontaktua,

kontaktu fisikoa eta bakartzea edo bakarrik egotea.

Haur guztiek dute gaitasun hori, batzuk beste batzuk baino sozialagoak diren arren, harremanen bilaketan aktiboagoak diren arren. Hala ere, guztiek berezkoak dituzte baliabide horiek. Laburtzeko, bost direla esan daiteke: harremanak errazteko eskaerak eta eskaintzak, batez ere; harremanak oztopatzeko jokabideak, eta erasoak erraz identifikatu liteke hor; mehatxua, horren nabaria ez bada ere; lotsa, eta erakuskeriazko jokabidea edo exhibizioa

Atal horretan, hezitzailearen funtzioaren gainean egin beharreko galdera sinplea da: nola bultzatu eskaerak eta eskaintzak, eta nola saihesti, ahal den neurrian, erasoak, mehatxuak eta bakartzeak? Galderaren erantzunak lehen aipatutako alderdiei begira jarriko gaitu berriro: sentikortasunaren garrantzia, baretasun emozionalaren garrantzia; eta, hori ziurtatuta badago, gutxiagotan gertatuko dira erasoak eta mehatxuak. Eraso bihurtu daitezkeen jolasera bideratzen ahalegindu beharko genuke, eta balizko gatazkei aurrea hartzen eta gatazka-iturriak definitzen saiatu behar genuke.

Laburbilduz, garapen-testuinguru on batek kalitatea ziurtatuko du. Zeregin horretan, funtsezkoa da ebaluazioa. Orain arte, tradizionalki, haurra ebaluatu bada ere, testuingurua ebaluatu beharko litzateke. Izan ere, haurra berezkoak dituen gaitasun horiekin guztiekin dator eskolara, eta haurri zer eskaintzen diogun ebaluatu beharko litzateke. Abiapuntua hori izanik ahalbideetako da berrikuntza. Testuinguruaren ebaluazioak begi-bistan utziko du zer eragin duen haurraren; hau da, zer eskaintzen dion harreman-eta esplorazio-alorrean, eta horrek zer eragin duen.

Kalitatea Haur-Eskoletan

Bizi eta ikasi haur txikiekin



CAVALL FORT HAUR ESKOLA.

Sant Cugat del Vallès.

Rosa Ferrer, zuzendaria.

JOSEP MIQUEL CÉSPEDES.

Sant Adrià de Besos.

Elia Martínez, zuzendaria.

Cavall Fort Haur Eskola Sant Cugat del Vallèsko (Bartzelona, Herrialde Katalanak) auzo batean dago. Auzoa duela 12 urte eraiki zuten, eta eskolak 9 urte ditu.

80.000 biztanleko herriak nahikoa gizarte-zerbitzu ditu. Udal patronatu bat du, eta arte-eskola bat, arte plastikoen lantegi bat, musika-eskola bat eta zazpi haur-eskola daude. Eskola berriak zabaldu zituztenean langile guztiei galdetu zieten ea proiektu berri batean hasi nahi zuten. Patronatuko hiru lagunek onartu zuten, tartean Rosak, eta eskola berrian hasi ziren; ekipoko

gainerako lagunak berriak ziren. Hori izan omen zen ederrena.

Eskolan hasi zirenean egin zuten lehenengo gauza mahai gainean proiektu berri bat jartzea izan zen: haurrekin denbora asko zeramatenek ez zekiten dena, ez ziren arrazoi osoaren jabe.

Josep Miquel Céspedes Haur Eskolan bat egin dute politikak eta pedagogiak. Eskola 2007an zabaldu zen, baina haren hastapenetatik, eraikina altxatzen hasi aurretik, hasi zen lanean Elia, 0-3 zikloa oso ongi ezagutzen zuena, ahalik eta alderdi gehienak koordinatzeko. Sant Adrianek 33.000 biztanle ditu eta oso industrial da, herri langilea, alegia.

Haien eztabaidak izan ziren abiapuntua: haurtzaroaren gainean zuten ikuspegia, haurrek ikasteko duten moduz zuten ustea, eta abar. Ideia zahar eta berrien artean sortu zen haurtzaroa-

rekiko ikuskera. Haurtzaroaren ikuskera berri bat zen, eta haurtzaroaren kultura berri bat ekarri nahi zuten hirira.

Amaierarik ez duten eta amaierarik ez izatea nahiko zuketzen eztabaida haietatik abiatu ziren. Eta bide berri bat urratu zuten, haurren giza eskubideak oinarri zituena eta eskola bizitzeko leku gisa, denok elkarrengandik ikasten dugun toki gisa, ikusi nahi zuena. Helburua eskola gardena, parte-hartzailea eta munduari irekita dagoena, haurren beharretatik abiatzen dena, lortzea zen. Erlaxatua, giro lasaia duena, haurren erritmora doana. Haur Eskola herrien eta hirien kultura eraikitzen duen komunitate gisa ulertzen dute, jendea barne hartuko duena, bizikidetzeta eta pertsonen arteko elkarriketa ahalbidetzen duena, haurtzaroaren ongizatea hobetuko duen jendartea posible egiteko bidean.

Eskola horietan harreman estua nahi dute familiarekin, familia bera baita aniztasunaren iturri handiena. Horrek, norbanakoen arteko erlazioa eta komunikazioa eskatzen ditu: ahozko harremana ziurtatu behar da, eta, ahal izanez gero, baita idatzia ere. Familien parte hartzearen eta kudeaketa demokratikoaren aldeko apustua egin dute: hau da, familiarekin egiten den harremanen aberastasuna eskolan dauden helduek eta haurrek bizi behar dute. Haur txikienek beren historia jasotzen duen liburuxka bana dute. Helduagoekin gelako liburua egiten dute, eta taldearen historia da. Egunero eramaten dituzte etxera, bai bata eta bai bestea, eta familiariek berorietan idatz dezakete. Era berean, gela bakoitzean sofa bat eta kafe-



makina bat daude. Haurrak eskolara ekartzera datorren oro gera daiteke han, haiekin espazio eta denbora horiek partekatzeko. Une horiek partekatzeak konplizitateak sortzen ditu familiarekin, eta haurrentzat sakon bizitako uneak dira, gehien maite dituzten bi gauzak ondoan baitituzte: etxekoak eta eskola, han ematen baitituzte ordu asko. Espazio eta denbora horiek partekatea aberastasun izugarria da denentzat.

Talde-lana, etengabeko prestakuntza gisa planteatu dute. Hezitzaileekin, sukaldariarekin, garbitzaileekin osatutako taldea dute: talde horretan egunerokotasuna ezbaian jartzen dute, behatzailea da, eztabaida-sortzailea, hausnarketak egiten ditu eta egitasmo berriak proposatzeko eta komunitatearekin eta hainbat talderekin elkarlana egiteko gai da. Talde-lanaren helburua haurtzaroaren kultura eraikitzeke sare sozialak sortzea da.

Eguneroko lanean, bikote hezitzailean oinarrituta lan egiten dute, beharrezkoa baita haur talde bakoitzarekin harreman zuzena izatea. Talde bakoitzean bi pertsona arduradun izateak harremanak, afektu-erreferenteak, begiradak, zalantzak eta erlazioak errazten ditu.

Behaketak eta dokumentazioak funtsezko tresnak dira beren proiektua garatzeko, hausnartzeko eta eguneroko jarduna balioesteko. Aztertzen dituzten egoerak hauek dira, batez ere: eskolako sarrera eta irteerak, elikadura, atsedena, norberaren buruaren garbiketa, jardun askea eta autonomia.

Azkenik, kontu handiz zaintzen dute espazioaren eta denboraren antolaketa. Munduari zabalik dagoen eta haurraren beharretatik eta interesetatik abiatzen den eskola-eredu horren bila

ketan espazioak oso antolatuta daude, denbora eta espazioa izateko haurrekin, eta baita familiarekin eta eskolako gainerako helduekin ere. Espazio partekatua dira, harremana bultzatzen duten espazioak.

Espazio horiek antolatzerakoan, eskola egiten duten pertsona guztien gan pentsatu behar da, pertsona horiek bizitzeko, erlazionatzeko eta abarrerako hainbat behar baitituzte. Era berean, barruko espazioari eskaintzen zaion kontu bera eskaini behar zaio kanpoko espazioari ere. Horretarako, jolastokia lorategi edota baratze bihur daiteke, naturarekiko harremana errazteko. Eta, azkenik, naturalak diren materialak lehenesten dituzte, ehundurek, egiturek eta abarrek haurrari errazten baitote eraikitzea eta sortzea.

Sant Adriako esperientzia

Eskola eraikitzen ari ziren bitartean sortutako konplizitateen ondorioz, haurtzarorako eta familientzako lehen zentroa da. Beraz, espazioak ditu haurrentzat eta espazioak ditu familiak etortzeko haurrekin.

Eskola eraikitzen ari zirela, udaleko gizarte-zerbitzuek zuten zentro batean, haur txikiak zituzten amen bi talde sortu zituzten. Horrek ahalbidetu egin zuen haurtzaroaren beste kultura batez hitz egiten hastea, eta, besteak beste, ez dela irakatsi behar, baizik eta lagundu egin behar dela esaten hasi ziren.

Haurtzaroarekin zerikusia duten komunitateko gainerako kideekin jarri ziren harremanetan (emaginekin, gizarte-zerbitzuekin, auzoko liburutegiarekin, musika-eskolarekin...) eta proiektua azaldu zieten.

Hilabete behin biltzen ziren norberak buruan zuen haurraz hitz egiteko, eta baita bakoitzaren haurtzaroaren

gainean aritzeko ere. Ados agertu ziren egunerokotasunak duen garrantzia azpimarratzerakoan.

Familientzako espazioek bereizten dute Sant Adriako eskola eta Sant Cugatuko eskola. Espazio horietara haur txikiak joaten dira beren etxekoekin, ez dira etortzen ezer irakasteko, baizik eta hezitzaileei sostengua emateko.

Hilabete behin hitzaldiak ematen dira: emaginak, erizainak, pediatrik edo komunitateko beste edozein partaidek ematen ditu. Ulermen eta empatia handiarekin lan egiten dute, jendea lasaitu nahi dute, batez ere, eta horrek ekarri du haurtzaroaren ikuskera berri bat.

Espazio horietatik, eskolatik bezala, familien parte-hartzea bultzatu nahi dute. Lehen bileran gurasoei galdetzen diete ea eskola nola ari diren bizitzen, zeri buruz interesatzen zaien hitz egitea, zerk kezkatzen dituen gehien.

Proiektuak aurrera egiteko, ezinbestekoa da bestelako begirada bat edukitzea. Askotan, garrantzitsuena gure begirada da, *bezi* edo *otzandu* kontzeptuek dugun ikuspuntua, haurtzaroa eta parte-hartzea ulertzeko dugun modua. Zenbaitetan, baldintzak aldekoak izan arren, hausnarketa horiek egiten ez badira, proiektuak ez du aurrera egiten. Izan ere, espazioak era batera antolatuta, gauza batzuk gertatzen dira, eta, beste era batera antolatuta, beste batzuk.

**Apirilaren 9ko astean
Kataluniako 0-3 urte bitarteko
haur-eskolak bisitatzeke
bidaia prestatzen ari da
Hik Hasi.
Erne! Laster, izena emateko
aukera egongo da.**

lore erriondo

ELKARRIZKETA

Pedagogo, EHUko irakaslea.

“UEU, euskal unibertsitatea eta curriculumama oztopatzea ondo egituratutako politika baten ondorio da”



lore erriondo

E

“ Unibertsitateak markatu behar du gizarte baten etorkizuna, horregatik da estrategikoa.

”

“ Etorkizuneko profesionalak prestatzen dituen da unibertsitatea. Orduan, unibertsitatean zer titulazio lantzen diren zehazteak gizarte horren etorkizuna bera zehaztuko du.

”

Donostiako Pedagogia Fakultatea abian jarri aurretik iritsi da Lore Erriondo bulegora. Egunak ez du argitu artean. UEU, euskal unibertsitatea edota euskal curriculumak garatzeko eta gauzatzeko lanean buru-belarri ibili da Erriondo (Orereta, 1960) urte askoan, eta langintza guztietan, administrazioaren trabekin topo egin du. Oztopoak oztopo, ez du irribarrea sekula galdu, hark sortzen lagundu zuen aldizkari honekin egindako elkarrizketan.



Jaurilaritzako Hezkuntza Sailak diru-laguntza izendunak kendu ondoren, zer egoeratan gelditu da UEU? UEUren jarraipena berma daiteke?

Aurten, 40 urte beteko ditu UEUk, eta sorreratik gizarteari lotuta egon da, gizartetik sortu baitzen, premia zegoelako. Ez du sekula galdu izaera hori, ez da sekula enpresa bihurtu, irabazteko asmorik gabeko elkarte bat izaten jarraitu du, eta gaur egun ere hala da. Haren jarduna gero eta gehiago zabaldu denez, soldatapean gero eta langile gehiago dituen elkarte da, baina luxu gabeko elkarte, aldi berean. Udako topaketak izatetik udako ikastaroak izatera pasatu zen, eta gero eta jarduera gehiago izatera. Horrek elkarte zabaltzea ekarri zuen, langile gehiago kontratatzea; baina, betiere, hastapenetako asmo horrekin berarekin jarraitu du, hau da: unibertsitate mailan euskarren eta euskal kulturaren garapenean aurrera egitea eta horretan sakontzea. Bide horretatik, beraz, gero eta esparru gehiago hartu ditugu, gero eta jarduera gehiago prestatu ditugu, baina lan boluntarioan oinarritutako erakunde izaten jarraitu dugu, euskal unibertsitatearen bidean urratsak eginez, gainerakoekin osagarritasunean eta elkarlanean. Beraz, diru-laguntzak kentzeak zer dakar? Oso egoera larrian egotea, eta egitura bera berriro planteatu eta egokitu beharra. Kinka larrian gelditu da UEU, oso larrian. Baina hastapenetako izaera hori galdu ez dugunez, aurrera egingo dugu nolana ere, badagoelako oinarritzko borondate bat: UEU gizarte premietarako zerbitzu bat da, eta borondatepeko lan bat da. Moldaketak egin behar ditugu egiturari, eta horrek oso egoera zailean jartzen gaitu, biziraupen-

na bera ere zalantzan jarriz; baina, borondateak hor jarraitzen duenez, aurrera egingo dugu. Hori bai, batetik eta bestetik, bizi ahal izateko, biziraun ahal izateko, laguntza bila gabiltza.

Berriro ere ematen du euskararen eta euskal kulturaren garapena borondatearen pean gelditzen dela.

Tamalgarria da, baina hala da. Administrazioak bere egitekoa bete beharrean, profesionaltasunez eta normaltasunez euskara esparru guztietan garatu beharrean, argi adierazten du bere jarrerarekin oraindik normalizatu gabeko gizarte batean gaudela, eta normalizatu gabeko administrazio bat daukagula; tamalgarriena hori da. Horregatik daude bizirik gu bezalako elkarteak, euskararen eta euskal kulturaren biziraupena normalizatuta balego, dagoeneko gure premiarik ez litza-teke egongo.

UEUK 40 urtean egindako lanaren aurrean administrazioak zer jarrera duen erakusten du neurri horrek, ezta?

Gutxiespena erakusten du, bai. Administrazioak ez du egiten bere lana, baina, egiten duen horri egin izana aitortuko balio, bada, konforme. Baina hori ere ez du egiten, eta euskal kulturaren garapenean lanean gabiltzanok baztertu egiten gaitu, ez gaitu aintzat hartzen. Gutxiespena erakusten du, bai. Eta gainera, gobernu horrek asko esaten du euskararen eta euskal kulturaren garapenean dauzkan interes, lehenetasun eta premiei buruz.

Harreman zuzenik izan duzue Jaurlearitzako Hezkuntza Sailarekin?

Instituzio eta administrazio guztiekin harreman zuzena izaten saiatzen gara. Diru-laguntza izendun gutxi batzuk dauzkagu, eta, nahiz eta laguntza izendunak izan, guri kontu ematea gustatzen zaigu, diru hori zertarako erabiltzen dugun esatea; bestetik, deialdiak aurkezten ditugun proiektuetan ere saiatzen gara harreman zuzena izaten. Hori diru publikoa denez, eta guk zerbitzu publikoaren izaera daukagunez,



gardentasuna gustatzen zaigu. Egiten dugun hori zer den adieraztea gustatzen zaigu, eta zergatik egiten den adieraztea, eta jasotzen dugun diru hori zertan erabiltzen dugun jakinaraztea. Horixe zor zaie gizarteari eta gizarte hori kudeatzen duen administrazioari. Laguntzak kendu zaizkigunean, ez dugu lortu harreman zuzena izatea, zergatiak jakiteko. Batzarrak eta harremanak eskatu ditugu, eta teknikariengana iritsi gara, jarrera ona erakutsi digute eta azalpenak eman dizkigute, baina jaso dugun azalpen bakarra zera da, krisi egoeran gaudela eta ez dagoela dirurik guztiontzat eta denerako.

UEUK 40 urte egin behar ditu. Atzera begira jarrita, zeintzuk izan dira lorpen handienak? Nola aldatu da unibertsitate mailako prestakuntza?

Duela 40 urte, asko zegoen egiteko, asko-asko, ia guztia. Guztia ez dugu esango, ez dugu gutxietsi nahi gure aurretik egindako lana. Gainera, zailagoa da urrats txiki bat egitea, deus ez dagoenean; behin zerbait eginda dagoenean, errazagoa da urratsak egitea. Hastapenetako lana baino ikusgarriagoa da ondorengo, baina guk aitortu egin behar dugu gu baino lehenagotik egindako lana. Oinordekoak gara, lekukoa jaso dugu. Baina, hala ere, egiteko asko zegoen. Horrek badu alderdi on bat: oso garbi zegoen zer egin behar zen.

Sentsibitatea eta kontzientzia zeuden neurrian, jende asko zegoen hori egiteko prest. Ez zen soilik egiteko asko zegoela; egoera politikoa ere errepre-sioagoa zenez, euskal kulturaren alde lan egiteko grina handia zen, eta indarrak metatzeko egoera, berriz, hobe-a. Egoera hori hobetzen joan da, politikoki hobetzen joan delako, batetik, eta teknologikoki ere garatu garelako, bestetik; eta lan arloan ere hobetu gara. Elementu asko izan ditugu hobekuntza horren alde, eta ez dira elementu bakar-tuak izan, osotasun bat osatzen dute, gurpil bat. Egoera politikoak hobera egiteak, gizartea askeagoa izateak, euskal gizartearen errekonozimendu handiago bat ere badakar, hizkuntzarena eta kulturarena. Premia horiek aitortzen direnean, urratsak egiteko bidea urratzen da, instituzionalki, ikuspegi legetik, eskubideen ikuspegitik... (instituzioen sorrera, diru-laguntzak, lanbide batzuen hastapena, profesional batzuen garapena, ikasketak...). Urratsak egiten dira, eta horrek guztiak aurrera egiten laguntzen du.

Bestetik, zer gertatzen da urratsak egiten direnean? Ibilbidea gero eta gehiago zehaztu behar dela, definitu egin behar dela. Sasoi batean, ia guztia Udako Euskal Unibertsitatearen egiteko zen, eta edozertaz jardun zitekeen bertan; baina urratsak egin ahala, gero eta gauza definituagoak egin beharra

**“Euskal”
diogunean, ez diogu
soilik euskaraz egiten
den hori, baizik eta
Euskal Herriaren
ikuspegitik antolatutako
eta Euskal Herriaren
etorkizunerako
unibertsitateaz ari gara.
Hori da burujabe izatea,
guk zer izan nahi dugun
jakitea, eta izan nahi
dugun horretara iristeko
bidea urratzeko aukera
izatea, eta bestela,
aukera sortzea.
Horretan ari gara,
sortzen.**

”

izan dugu. Topaketa batzuk izatetik ikastaro batzuk izatera igaro zen UEU, argitaletxe izatera, unibertsitate mailako ikasliburuak sortzera, teknologia berriak erabiltzera, tesiak digitalizatzea, datu-basea egitera, komunitatea trinkotzera, profesionalen arteko topaketak egitera, unibertsitateen arteko sinergiak bilatzera, ikasketa premiak zeintzuk izan daitezkeen zehaztera...

Kontzientzia aipatu duzu. Orain dela 40 urtetik hona, nola aldatu da unibertsitateko ikasleek euskararekiko eta euskal kulturarekiko duten kontzientzia?

Nik uste dut proportzionala dela, alegia, zenbat eta aukera eta baliabide gutxiago eduki, premia horretaz orduan eta kontzientzia handiagoa dagoela; egin beharra handiagoa da. Sasoi batean, ez zegoen Euskal Herriko Unibertsiterik, Valladoliden zegoen unibertsitatea, gero sortu zen Bilbokoa, eta geroago sortu zen Euskal Herriko Unibertsitatea. Hastapenean, beraz, ez zegoen unibertsitatean ez euskal gaiei buruzko ikasketak egiterik, ez ikasketak euskaraz egiterik ere. Euskaraz ikasterik ez zegoenez, gabezia hori nabarmena zen, kontzientzia handiagoa zen, eta, beraz, aldarrikapena zentratuago zegoen. Gero, urratsak egiten hasi ziren euskal unibertsitatea egiteko bidean; unibertsitatean ere euskaraz ikasten hasteko urratsak egin ziren Euskal Herriko Unibertsitatearekin, eta lege aldetik ere urratsak egin ziren. Ez dugu ahaztu behar elebitasun dekretua sortu zela, autonomiak sortu zirela; eta euskaraz ikasteko aukera sortu zen, ez bakarrik euskara ikastekoa.

Urratsak aurrera egin ahala, kontzientzia hori apaltzen joan da. Hainbatek pentsatzen du, euskaraz zerbait ikasterik badaukagunez, egoera normalizatzen ari dela. Orduan, kontzientziak atzera egiten du proportzionalki. Hala ere, nik uste dut oraindik ere ez direla bete hastapenetan zeuden itxaropenak, urteak pasatu diren arren; hau da, uste zen tokiko administrazioak sortu ahala aseko zirela euskaraz

ikastearen inguruko premia horiek eta, beraz, irtenbideak izango genituela. Hastapenetan, hainbatek eta hainbatek, gizartearen parte handi batek, ba zeukan itxaropen hori. Urteak pasatu dira, eta hori ez dela horrela izan ikusi da, oraindik ere ez garela normalizazio egoerara iritsi, eta iritsiko garen ere zailtzak daudela. Nahiz eta kolpeka izan, oraindik ere premiak daudelako kontzientzia konstante bat da, jende askok ikusten du ez direla ase beharreko premia guztiak ase. Tokiko administrazioek ez dutela bete euskaraz ikasteko premia. Gizarte baten garapen osoa euskaraz egitea ezinezkoa da oraindik gaur egun, eta areago, unibertsitate mailan. Behar horrek hortxe jarraitzen du, gaur egun ere.

Hizkuntza batean ikasteko premia ez da etiketa bat, unibertsitate mailan hizkuntza batean ikastea garrantzitsua da oso. “Unibertsitate mailakoak” esapideak berak dioenez, unibertsalak dira irakasten diren gaiak, eta, azaletik begiratuta, berdin da Kotxintxinan edo hemen irakatsi; baina, sakonean, ez da horrela, ez da etiketa soil bat. Gizarte baten unibertsitateak markatuko du gizarte horren etorkizuna. Etorkizuneko profesionalak prestatzen dituen da unibertsitatea. Orduan, unibertsitatean zer titulazio lantzen diren zehazteak gizarte horren etorkizuna bera zehaztuko du. Eta horretarako, ikuspegi osoa izan behar dugu. Euskal gizartearen hementik 20 urtera zer izatea nahi dugun ikusi behar dugu, eta, horren arabera, ildo horiek antolatzen joan behar dugu, eta ildo horiek lantzeko titulazioak eskainiko ditugu; nolako goi mailako profesionalak behar ditugun pentsatu behar dugu, nolako harremanak izan nahi ditugun lan munduarekin... Hori erabakitzen ez dugun neurrian, beti besteren menpe ibiliko gara. Beraz, guk “euskal” diogunean, ez diogu soilik euskaraz egiten den hori, baizik eta Euskal Herriaren ikuspegitik antolatutako eta Euskal Herriaren etorkizunerako unibertsitateaz ari gara. Hori da burujabe izatea, guk zer izan nahi dugun jakitea, eta izan nahi dugun horretara

iristeko bidea urratzeko aukera izatea, eta bestela, aukera sortzea. Horretan ari gara, sortzen.

Euskal unibertsitatearen premia oraindik bizirik dago, orduan.

Bai, bizirik dago oraindik. Beraz, horrek esan nahi du Euskal Herriko Unibertsitateak bere urratsak egin dituela, eta urrats garrantzitsuak izan direla, egindakoa aitortu behar zaiola, baina ez duela guztia egin, ez. Oraindik urratsak egiteko daude. Gure ustez, euskal unibertsitatearen aldarriak oraindik hor dirau, premia hori ez delako ase oraindik, eta egun Euskal Herriaren dauden unibertsitateek ez dutelako guztiz ase premia hori. Orduan, pentsatzen dugu ase gabeko gabezia bat daukagula euskal unibertsitatean, eta hor urratsak egin behar ditugula. Beti ere, guk garbi daukagu herri txikia garela, gutxi garela, eta asko dagoela egiteko. Aintzat hartu behar dugu eginda dagoena, eta ez dugu errepikatu behar eginda dagoena, ez dugu sartu behar lehian beste batzuek egiten dutenarekin. Gutxi gara asko egiteko. Horregatik, elkarlana eta osagarritasuna behar ditugu: dagoeneko eginda dagoena errespetatu eta balioetsi, eta eginda ez dagoena hartu egiteko. Eta, ahal dela, gainerakoekin elkarlanean jardun, jarreraren ikuspegitik behintzat. Horregatik, pentsatzen dugu oraindik asko dagoela egiteko, eta urratsak egiten ari gara, euskal unibertsitatearen proiektua geure sentitzen dugulako, gizarteko beste hainbat elkarterekin eta erakunderekin batera. Tamalez, administrazioak urrats horiek oztopatu egiten dizkigu, ez zaigu aitortzen premia hori dagoenik ere, unibertsitatearen fundazioa bera legezatzeko eragozpenak eta arazoak ditugu.

Orain dela pare bat urte, ematen zuen dena eginda zegela, Tolosan euskal unibertsitatearen eraikina ikusten ari ginen... Eta aspaldian ez dugu euskal unibertsitateari buruz ezer entzun.

Nahiz eta “edukizkola” egiten jarraitu, oztopoak datoz etengabe, zan-



gotrabak datoz erakunde eta instituzioetatik. Fundazioa legezatzeko dela, gero bestea dela... Urrats legalei dago kienez, oztopo guztiak jartzen zaizkigu, aurrera egin ez dezagun. Baina lan handia dago eginda, eta egiten jarraitzen dugu.

Oztopo horiek jartzeak esan nahi du, baita ere, oztopoak jartzen dituen erakunde horrentzat estrategikoa dela unibertsitatea kontrolatzea.

Estrategikoa da, bai. Unibertsitateak markatu behar du gizarte baten etorkizuna, horregatik da estrategikoa. Administrazioak esaten du: “Euskal unibertsitate bat? Ez da behar euskal unibertsitaterik. Existitzen da Euskal Herriko unibertsitatea”. Eta bai, egia da, Euskal Herriaren dagoen unibertsitatea da bai, baina ez dugu euskal unibertsitaterik oraindik. Euskal Herriaren ikuspegitik eta Euskal Herriaren etorkizunerako unibertsitatearen premia ase gabe dago. Oraindik, euskal irakaskuntza horretan urratsak daude egiteko. Instituzioen diskurtsoa hori da, badagoela euskal unibertsitatea, eta ez dela behar.

Euskal unibertsitateari trabak jarri dizkio administrazioak, eta gauza berbera gertatu da euskal curriculumarekin ere, ezta? Euskal curriculumarekin lantzen ere parte hartu zenuen, beste hainbat aditurekin batera.

Gauza bera da. Beti egiten dugu topo administrazioarekin, eta ez da kasualitatea. Udako Euskal Unibertsitatea, euskal unibertsitatea, euskal curriculumarekin, ereduak, euskal kultura, ondarea, oroimena... Beti toki berera iristen gara, beti oztopoak jartzen dizkigu administrazioak, kasualitatea! Kasualitatea ote betiere nortasuna adierazten duten bide horiek guztiak, eredu propioa adierazten dutenak, burujabatasuna adierazten dutenak, autonomia adierazten dutenak, izaera propioa adierazten dutenak, batean eta bestean kolokan egotea? Ba ez, ez da kasualitatea. Bat kasualitatea izan daiteke, baina oztopo horiek guztiek adierazten dute oso ondo egituratutako politika bat dela, oso garbi dagoena. Itxuraz, ez dago inon, baina oso argi dago politikoki zer izan behar duten Euskal Herriak, euskal kulturak eta euskal izaerak

lore erriondo

E

“ Bolognaren zurrunbiloak alde onak eta txarrak ditu. Nik Bolognari pare bat alde on ikusten dizkiot; bata: ikaslearengan zentratzea, eta ez irakaslearengan; hori erreal den neurrian eta gauzatzen den neurrian, positiboa da. Bolognaren bidez, baita ere, European nor izan gaitezke, eta ongi ikusten dut hori. Hau da, estatuaren mugak gaindi ditzakegu. Ikuspegi horretatik, hegoaldeko eta iparraldeko euskaldunok bat egin dezakegu European.

”

agintzen dutenentzat.

Zer gertatzen da euskal curriculumarekin? Gauza bera. Gerra aurretik datorren historia da, 60ko hamarkadan ikastolen mugimenduarekin hasi eta gaur jarraitzen duena, oraindik bukatu ez den bidea da. Eta hor daukagu azken 10 urteetan euskal curriculumaren alde izan dugun mugimendua, euskal unibertsitatearen estrategia berean doana. Nik uste dut elkarlanean eta modu osagarrian lan egiten jarraitu behar dugula; elkartuta, sektore eta sare guztiak elkarturik, administrazioarekin elkarlanean saiatu behar dugu, gure haur eta gazteek unibertsitate mailatik behera etorkizuneko hiritar prestatuak izateko gizarte horretan zer behar duten ikusteko. Hau eta bestea behar dute, baina euskalduntasunaren ikuspegitik. Euskalduntasunaren ikuspegia sartzen denean, ordea, erne! Administrazioek beti oztopoak jartzen dizkigute. Hor, nor agintzen duen agertzen zaigu beti, boretan dagoenaren interesak agertzen dira, eta zer agintzen duen. Mendekotasuna agertzen zaigu beti. Orduan, agintariaren kolorearen arabera, bidea zabaldu edo estutu egiten da, baina mendekotasuna dakar beti horrek. Urte asko dituen mugimendu bat izan da euskal curriculumarena, eta ia lortu zen gizarte honetako curriculum nahiko modu duinean adostea, izaera propioa izateko sare guztietan gutxienez eta komunean adostutakoa izatea. Eta eskolaren bidez nongoak garen eta nor garen jakiteko aukera emango zigun curriculumak. Hori baita, hain zuzen ere, gizarte batean eskolak duen funtzioa. Baina berriro ere errotik eten da. Lan handia egin da, baina eten egin da. Eta horrela gabiltza, ahal duenak ahal duena eginez.

Zer leku gelditzen zaio haur eta gazteak euskalduntasunean hezi nahi dituen ikastetxe eta irakasle horri?

Borondatea, berriro ere. Berriro ere borondatera itzultzen gara. Borondate hori instituzionalizatuagoa izango da, edo pertsonalagoa izango da, erakunde hori sare batean edo bestean koka-



tzen den. Koka-tzen den sare horretan gogo txikiagoa baldin bada, kontrako jarrera handiagoa baldin bada, euskalduntasunean hezteko borondate hori pertsonalagoa izango da, eta, horrelakoetan, irakasle jakin batzuei buruz ari gara; edo ikastetxe jakin batzuei buruz; edo sare jakin batzuei buruz: pribatua, publikoa, ikastola. Etengabe jirabiraka gabiltza, borondatearen eta irakaslearen edota ikastetxearen kontzientziaren biran. Egoerak txarrera egiten duen lekuetan eta garaietan, kontzientzia handiagoa dago, eta, kontzientzia handiagoa dagoenean, indarrak biltzeko aukera dago, eta egoera aldatzeko presioa egitekoa. Egoera aldatzeko presioa bide onetik egiten bada, gero, aldaketa politikoak etorriko dira, aldaketa politiko horiek bidea emango diote beste eredu bati... Baina herri batek ezin du egon aldaketa politikoen menpe etengabe, kolore batek edo besteak zer esaten duen, bestela, aurrera egiten diren urratsak atzera egiten dira aldaketa datorrenean, eta beti ukatu egiten zaio izaera. Horregatik, beharrezkoa da burujabetasuna: burujabetasunarekin, gutxienez bermatuta dago izatea, herri izatearen eskubidea. Gero, izate hori bide batetik edo beste batetik joango da, baina ez da zalantzan jartzen euskaldun izate hori, aukera hori, eskubide hori, historia hori, hizkuntza hori. Baina, une honetan, eta menpeko garen neurrian, hori guztia zalantzan jartzen da, eta izateko aukera handiagoa edo txikiagoa daukagu, dugun gobernuaren arabera.

Baina hauxe esango dizute: “Aspaldian irakasten da euskaraz!” Nahiz eta horrek

ez duen bermatzen euskal kultura, euskalduntasuna bera, transmititzen denik, hau da, hizkuntza batek bere baitan duen hori guztia transmititzen denik.

Hain zuzen ere, hortxe dugu arriskua. Hizkuntza bera galtzeko arriskuan jartzen du horrek. Hizkuntza batek berearekin mundu bat ez badakar, ez badu mundu hori transmititzen eta ez badu izaera propio bat transmititzen, hizkuntza horrenak egin du. Izan ere, beste baten itzulpen literala izango litzateke. Eta beste baten itzulpen literala izateko, ez da izango. Hizkuntzak berearekin mundu bat transmititu behar du. Guk, pertsonok, halako luxu batzuk ditugu, bi auto izatea, edo bi etxe izatea, edo bi koaderno izatea... Baina, erabili, bata edo bestea erabiltzen dugu, edo txandaka; ez ditugu aldi berean biak erabiltzen. Bada, natura are jakintsuagoa da, eta hizkuntzak are jakintsuagoak dira ekonomiaren ikuspegitik. Bi hizkuntzak ez dute luzaro irauten, funtzio bera dutenean. Beraz, zeinek dauka hor galtzekoa? Egoera okerrenean dagoenak. Zein da? Euskara. Eduki propiorik ez badu, izaera propiorik ez badu, euskarak euskalduntasuna transmititzen ez badu, lehenago edo beranduago, desagertu egingo da, eta, euskara desagertzearekin batera desagertuko da euskalduntasuna, eta desagertuko da izaera bat, eta nortasun bat, herri bat.

EHU non kokatzen da bide horretan?

Euskal Herriko Unibertsitatean urrats batzuk egiten jarraitzen da. Batzuetan, aurrera egiten da, eta beste batzuetan, atzera, baina hor goaz.

Bolognaren zurrunbiloak nola eragin du Pedagogiako fakultate honetan?

Bolognaren zurrunbiloak alde onak eta txarrak ditu. Nik Bolognari pare bat alde on ikusten dizkiot; bata: ikaslearengan zentratzea, eta ez irakaslearengan; hori erreala den neurrian eta gauzatzen den neurrian, positiboa da. Orain irakaslea ez da Jainkoa, irakaskuntza ez da harengan zentratzen, ez

da gelaren erdian jartzen dena, eta ez dauka jendetzarik hura gurtzeko; aldiz, ikasleak ikasgai horretaz, irakaslea aditua den ikasgai horretaz, jabe daitezen arduratu behar du irakasleak. Horrek esan nahi du zuk zure jakintza adierazteko ez duzula eskola antolatu behar, ez; ikasle horrek zuk daukazu jakintza hori bereganatu dezan lortu behar duzu zuk, eta hori horrela dela frogatu behar duzu. Beraz, Bolognaren arabera, praktikoagoa izan behar du, aplikatuagoa, komunikazio eredua aldatu egin behar du, ikertzaileagoa izan behar du... Horrek aldaketa handia eskatzen du. Noraino gauzatzen ari den, noraino gauzatuko den, hori beste kontu bat da. Baina alderdi hori positiboa da niretzat, eta ona da. Hori ebaluatzeke sistemak jarri dira, eta urrats batzuk egin daitezke hor. Gauden fakultatean egonda, Pedagogian egonda, errazagoa da hori egitea, hemen sentibilizata eta ohituago baikaude horretara, ez zaigu arrotza egiten hori; lehendik ere, teoriarik behintzat, aldarrikapen batzuk egiten genituen guk norabide horretan. Zailagoa da hori sistematiko ki ezartzea.

Bolognaren bidez, baita ere, Europan nor izan gaitezke, eta ongi ikusten dut hori. Hau da, estatuaren mugak gaindi ditzakegu. Ikuspegi horretatik, hegoaldeko eta iparraldeko euskaldunok bat egin dezakegu Europan, ikuspegi horretatik zirrikitu bat izan dezake Bolognak.

Nik, horrelakoetan, ona izan daitekeen adar horri heltzen diot, eta hori garatzen dut, zeren, txarrak, egon, hor daude. Irizpideak garbi ez badauzkazu, berdintasunaren ordez uniformetasuna bultzatzen dezake Bolognak, mendekotasun bat ekar dezake... Adar txar ugari dauka, asko azpimarratzen direnak, baina goazen adar positiboetara heltzera eta haiek lantzera.

Hik Hasiren sorrerako taldean ibili zinen; nola ikusten duzu Hik Hasiren funtzioa, 17 urte geroago?

Premia dagoenean, jendeak elementu biltzaile bat, bateratzaile bat,



eduki behar du, nora jo eta norekin egin dezakeen ikusi behar du. Hik Hasik betetzen du funtzio hori, dagoeneko erreferente bat da euskal hezkuntzan, eta badago nora jo irakurtzera, baliabideak bilatzera, jendea topatzera... Gauza bat da irakasle edo ikastetxe batek kontzientzia eta borondatea edukitzea, baina, hala ere, galduta egon zintezke, eta norberak bere bakardadean ezin du aurrera egin. Horregatik, horrelako erreferenteak -Hik Hasi, adibidez- ezinbestekoak dira, horien inguruan biltzen eta egituratzen direlako jendea, ideiak eta proiektuak. Hik Hasi bizkarrezurra da.

Zergatik ez daude mosketari neskak?

Ziur gure gizarteko eskola guztietan, urtarrileko lehenengo eguneko bilkuran, Olentzerok ekarritako opariez hitz egin genuela. Mosketarien proiektua elkarrikeriketa horren ondorioz sortu zen. Proiektu horren bitartez, lagunen arteko elkartasuna eta hezkidetzeta landu genituen.

Testuingurua

Proiektua garatu zen testuingurua berezia zen. Sarrigurengo eskola osatu berria zen, lehenengo ikasturtea zen, hain zuzen. Hori dela-eta, ikasturtearen helburu garrantzitsuenetarikoa lau urtekoen **taldea osatzea** izan zen. Ikasle-kopurua txikia zen, hamabikoa, eta horietatik soilik bi ziren mutilak. Gelako giroa ona zen: lasaia, partehartzailea, irekia... kopuru berezi horrek, baina, bazeukan eragina talde-dinamika osatzerakoan: neska batzuek beren gelakideak baztertu egiten zituzten. Horrez gain, gaur egungo gizarteak, eta, gehienbat, telebistako programak eta iragarkiek aurkezten dizkiguten emakume eta gizon ereduak, taldean indarra hartzen ari ziren, mutilen eta nesken arteko jolasak eta erlazioak areagotu ordez, murriztuz.

Abiapuntua

Eskola gehienetan gertatzen den bezala, urtarrileko lehen eskola-egunean Olentzerok ekarritako opariez



Idoia CARRICAS

hitz egin genuen. Ikasleek jasotako opari gehienak sexistak ziren; hots, panpina eta makillajea neskentzat, autoak eta spiderman-ak mutilentzat. Jasotako oparien artean, Jonek esan zuen “Barbie Mosketaria” gustatu zitzaiola gehien. Mosketaria pertsonaia interesgarria iruditu zitzaidan neskek eta mutilen elkarrekin jolas egiteko eta erlazio-

ak areagotzeko. Hortaz, Jone animatu egin nuen, panpina eskolara ekar zezan.

Urte hartan, Jonez gain, gelako beste neska batzuei ere Olentzerok “Barbie Mosketaria” ekarri zien. Mosketariei buruz asko zekiten guztiek, eta interesgarria iruditu zitzaidan proiektu bat aurrera eramatea.

Gelan zegoen dinamika oso irekia zen, hurrek hitza zuten eta beren ikas prozesuaren protagonistak sentitzen ziren. Proposamenak egiten, eztabaidatzen eta jarduerak antolatzen ohituta zeuden; beraz, mosketarien gainean zer egin genezakeen proposatzerakoan, ikasleek beren ideiak proposatu zituzten. Dinamika ireki hartan **“entzumenak”** garrantzi handia izan zuen, eta, harreman horri esker, bai ikasleen eta bai irakaslearen proposamenak eraldatu egin ziren (ikusita taula).



Proiektu hari esker, taldea gero eta trinkoagoa zen, neskak eta mutilak mosketarietan elkarrekin jolasten ziren, eta mosketarien leloa medio, **“Bat guztiontzat eta guztiok batentzat”**, guztiok elkarri laguntzen zioten.

Emakumeen agerpena eskoletan

Ikasleek Barbieren ereduia zuten mosketarien eredu bakar gisa; benetako mosketariak ezagutzera emateko eta errealitatearen eta fikzioaren arteko berezitasuna azaltzeko, Alexandre Dumasek idatzitako *Hiru Mosketariak* liburua eraman nuen gelara. Horrez gain, Google-mosketarien beste irudi batzuk bilatu genituen: Dartacan; Donald, Mickey eta Goofy mosketariak; Picassok margotutako mosketariak; D'Artagnan-erreturua, eta abar.

Horrenbeste informazio jaso ondoren, ikasleek askotan egiten dizkiguten galdera potolo horietako bat egin zidan Sarah: **“Zergatik ez daude mosketari neskak?”**. Sarah egindako galderari esker konturatu nintzen proiektu horretan ordura arte erakutsitako eredu guztiak gizonezkoenak zirela. *Barbie*, beharbada, ez da emakume-eredu onena izango, baina nire gelako neskenzatzat eredu bat zen. Emakumea agertu behar nuela konturatu nintzen, eta, horretarako, ikasleek mosketariei



buruz zeukaten informazioari garrantzia eman behar nion. Beraiek zuten ereduia ezin nuen desagerrarazi beste aukerarik eman gabe. Horregatik, *“Barbie eta hiru mosketariak”* filma ikusi genuen. Eta hura ezustea historiaren mezua adiskidetasuna zela ikusi nuenean!

Hezkidetza aspaldiko gaia da. Hala ere, ezin dugu ahaztu, eta gure eguneroko lanean hausnarketa egin beharko genuke horren ganean: gure geletan gizonezko ereduak daude soilik? Emakumezko zer-nolako ereduak aurkeztu ditugu?

Hainbat emakumek gauza garrantzitsuak egin zituzten. **Haiek egindakoak ez ahazteko**, eta gaur egungo neskek eta mutilek bestelako ereduak izan ditzaten, eskolan agertu behar di-

ra, besteak beste, emakume jakintsuak: Alexandriako Hipatia, Ada Byron eta Mari Curie; emakume idazleak: Mary Shelley; emakume kirolariak: Ellen Marchur; emakume bakegileak: Rigoberta Menchú, Maiatzako plazako amak; natura defendatzen duten emakumeak: Vandana Shiva, Jane Goodall; emakume astronomoak: Caroline Herschel, Elisabeth Korpman, eta abar. Gure ikasleei askotariko aukerak eskaini behar dizkiegu, beraiek beren etorkizuna modu autonomo eta kritikotan aukera dezaten, eta ez mementoko modek gidatuta.

Bibliografia

“Nosotras creamos mundo. Por preguntar que no quede”, in Cuadernos de educación en valores, 2. ●

Ikasleek egindako proposamenak	Irakasleek egindako proposamenak
Patioan mosketarietara jolastea.	Kartoizko ezpatak egitea.
Paris bisitatzea (Le Tour Eiffel).	Bolumena lantzea, dorreak egitea.
Barbie eta Hiru Mosketarien filma ikustea.	<i>Hiru Mosketariak</i> liburua irakurtzea.
Printzesaz mozorrotzea.	Sukalde-txokoa mozorroen txoko bihurtzea.
Zaldiak marraztea eta izena jartzea.	Picassok bezala, mosketariak margotzea.

Hainbat uste finkatu dira elebitasunaren gainean. Horietatik zenbat dira egiazko eta zenbat mito



Norbanakoen elebitasunaz hitz egin izan denean, hainbat mito eta uste oker zabaldu dira. Kontuan har dezagun elebitasun mota asko daudela, eta egoera guztiak ez direla atseginak edo baikorrak.

Elebitasun gehigarria litzateke egoerarik desiragarriena: hizkuntza biak indartzen dira, eta aberasgarria da pertsonarentzat. Baina gizartean eta eskolan beste hizkuntza bat nagusi denean, elebitasun kengarria ere gerta daiteke, hizkuntza bat, askotan familiakoa, "oztopo" dela ikusten bada.

Baina, arazo horiez gain, beste arazo batzuk ere badaude. Askotan, uste okerrez beteta daude, gizarte elebarrak batez ere, elebitasunari dagokionez.

Uste ustel horiek argitu eta salatze-lan bikaina egiten ari da François Grosjean doktorea: bai bere blogaren



Josu SIERRA
EUSKALTZALEA

bidez (<http://www.psychologytoday.com/blog/life-bilingual>), bai bere liburu famatuaren bidez (http://www.francoisgrosjean.ch/myths_en.html).

Grosjeanek desegiten dituen mitoak hauek dira:

1. Elebitasuna arraroa, bitxia da. Gezurra.

Munduko populazioaren erdia omen da elebiduna: elebitasuna leku guztietan eta giza talde guztietan gertatzen da.

2. Elebidunek haurtzaroan ikasten dituzte hizkuntzak. Gezurra.

Gaztaroan eta heldutasunean ere egiten dira elebidunak: hezkuntza, ezkontzak, migrazioak, eta abar direla medio.

3. Elebidunek hizkuntza biak berdinean eta perfektuki menderatzen dituzte. Gezurra.

Bi hizkuntzak berdinean menderatzen dituztenak oso gutxi dira (nik bat bakarrik ezagutzen dut). Elebidunak askotarikoak dira, eta behar dituzten mailan menderatzen dituzte hizkuntzak. Ba-

tzuek hizkuntza bat dute nagusi, beste-ek ez dute ondo idazten edo irakurtzen bietako batean, edo hizkuntza bat pasiboki ezagutzen dute.

4. Benetan elebidunak direnek ez dute azenturik beren hizkuntzetan. Gezurra.

Azentuak ez zaitu elebidunago edo elebakarrago egiten. Hizkuntza bat nola, noiz eta non ikasi duzun kontuan hartuta, azentu bat edo beste bat izango duzu. Perfektuki mendera dezakezu hizkuntza bat eta azentua izan, edo gerta daiteke azenturik ez izatea eta maila baxuagoa edukitzea.

5. Elebidunak itzultzaileak dira jaiotzez. Gezurra.

Hizkuntza batetik bestera itzultzeko gai izan arren, arazoak izan ditzakete arlo batzuetan.

6. Hizkuntzak nahastea elebidunen nagikeriaren seinalea da. Gezurra.

Hizkuntzak nahastea, maileguzko hitzak erabiltzea... oso arrunta da elebidunen arteko interakzioan.

7. Elebidunak bi kulturatakoak dira. Gezurra.

Asko bi kulturatakoak dira; baina, beste asko, elebidunak dira, baina kultura bakarrekoak. Aldi berean, bi kulturatakoak izan zaitezke, baina elebakarra (bi kultura, baina hizkuntza bera).

8. Elebidunek nortasun bikoitza edo zatitua dute. Gezurra.

Ez dago argudiatu beharrik, ezta?

9. Elebidunek beraien emozioak ama-hizkuntzan adierazten dituzte. Gezurra.

Hizkuntzak non eta nola ikasi dituzten eta emozioa norekin adierazten ari diren kontuan hartuta, kasuistika askotarikoa da.

10. Haurren kasuan, elebitasunak atzeratu egiten du haurrek hizkuntza eskuratzen. Gezurra.

Ikerketak ezetz dio.

11. Familia-hizkuntzak eragin negatiboa izango du eskola-hizkuntzaren ikaskuntzan, bi hizkuntza horiek desberdinak direnean. Gezurra.

Ez nahitaez. Berez, familia-hizkuntza da bigarren hizkuntza ikasteko oinarria.

12. Gurasoek seme-alabak elebitasunean hezi nahi badituzte, hizkuntza bat-pertsona bat araua bete behar dute. Gezurra.

Hainbat ingurutan hizkuntza desberdinak erabiltzea ere efikaza da, pertsonak berberak izanik ere.

13. Elebitasunean hazten diren haurrek hizkuntzak nahastu egiten dituzte. Gezurra.

Elebakarrekin aritzen direnean ikasten dute hizkuntza bakar bat erabiltzen.

Baina kontrako norabidean ere bada uste ustelak.

Azken urteotan, azterlan askok go-raipatzen dituzte elebitasunaren abantailak, eta hala da, baina argitu dezagun puntu hori ere.

Elebitasunak era askotako abantailak eduki ditzake, baina... hizkuntza biak erabili behar dira etengabe, ez noizbehinka.

<http://mobile.nytimes.com/article?a=796711&single=1&f=25>

Ellen Byalistok psikologoak eta neurozientzialariak dio, 1960 arte uste zela, AEBn bederen, elebiduna izatea desabantaila zela. Haren arabera, gero ikusi da guztiz kontrakoa dela. Elebiduna izateak "multiataza" bihurtzen zaitu, eta malgutasun kognitiboa ematen dizu. Era berean, Alzheimerra atzeratzeko balio dezake. Elebitasunak zure burmuina sendotu egiten du, burmuin-kirola da. Baina, horretarako, bi hizkuntzak etengabe erabili behar ditu-

Munduko populazioaren erdia omen da elebiduna: elebitasuna leku guztietan eta giza talde guztietan gertatzen da. Hizkuntza batetik bestera itzultzeko gai izan arren, arazoak izan ditzakete arlo batzuetan.



zu, ez noizbehinka: "You have to use both languages all the time. You won't get the bilingual benefit from occasional use".

Elebitasunaren hariei tiraka, eta aipatutako uste ustelak kontuan hartuz, hainbat gairen gainean hausnartzeko beharra nabarmentzen ari da gero eta gehiago.

Ikasle elebidunen ebaluazioa litzateke hari horietako bat, ez txantxetako, gainera. Eta hor, erabakigarria da azterketa egiteko aukeratzen den hizkuntza eta, nola ez, azterketa proba bera ere. Gaiaren gaineko hainbat gogoe-ta topatuko dituzu nire post honetan: <http://josusierra.wordpress.com/2009/09/26/%c2%bfporque-mucha-gente-no-entiende-la-importancia-de-la-lengua-de-la-prueba-en-una-evaluacion-de-alumnado-de-inmersion/>



Udaberrian,
etxean
hezten
laguntzeko
aldizkaria



Asko dira, jada, lehenengo aldizkaria etxean DOAN jasotzea eskatu dutenak.
Zuk ere nahi baduzu, hikhasi@hikhasi.com helbidean egin ezazu eskaera.

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

otsaila

berriak

Lodosako ikastolaren egoera ekonomiko larriari aurre egiteko elkartasun kanpaina abiatu dute



Lodosako Ibaialde ikastola muturreko gabezia ekonomikoan dago, eta ikastola itxi beharra izateko egoerara iritsi aurretik, Ikastolen Elkarteak Ibaialde ikastola SOS elkartasun kanpaina abiatu du, instituzio, norbanako, elkarte eta komunikabideei zuzendua. Kanpaina horren bidez, ikastolari diru-sarrera bat eskaintzeaz gain, Nafarroako Gobernuak “eremu ez euskalduntzat” izendaturiko herrietan seme-alabak euskaraz ikastera eramaten dituzten gurasoen ahalegina eskertu eta aitortu nahi du Ikastolen Elkarteak, “euren ahaleginari esker mantentzen baita han gure hizkuntza”.

Ibaialde ikastolan Lodoso, Sartagu-

da eta inguruko herrietako haurrak biltzen dira, gaur egun 74 ikasle guztira. Aurtun, gainera, bere 25. urteurrena ospatzen du, eta inguruko herrietan euskaraz ikasteko aukera ematen duen ikastetxe bakarra da. Ikastetxea eraiki ahal izateko obren mailegua ordaintzen ari da ikastola, batetik, 70.000 euro urtean. Eta bestetik, itundu gabeko bi ikasgelaren kostuari aurre egin behar dio, urtean 100.000 euro. Orain arte Nafarroako ikastolek lagundu dute Ibaialde, baina Pello Mariñelarena Nafarroako ikastolen zuzendariak adierazi duenez, elkartasun kutxa amaitua dago dagoeneko, eta ezin diote egoera horri aurre egin. Mariñelarenaren arabera,

Ibaialde ikastolaren egoera ekonomikoaren jatorria Nafarroako Gobernuak ikastolei ezartzen dien “finantzaketa eredu itogarria” da. Horrez gain, gaur egun ikastolak ez ditu jasotzen orain arte Eusko Jurlaritzatik eta Espainiako Gobernutik jasotzen zituen laguntzak. Ondorioz, Ikastolen Elkartearen arabera, “elkartasunaren bidea gelditzen da soil-soilik”.

Lodosako ikastolak bizirik iraundezan, “erantzun baikor, eraginkor eta aktibo bat” emateko deia egin diete euskaltzaileei. Elkartasun kanpaina *Euro bat, marrazki bat* ekimenarekin abiatu zen, ikastoletako ikasle bakoitzak euro bateko ekarpena egin zuen Ibaialde ikastolaren alde. Hortik aurrera, norbanako nahiz elkarrekin ekarpenak jaso ahal izateko kontu korrante bat ireki dute Euskadiko Kutxan, 3035 0153 46 153102605 zenbakiarekin. Ekarpene ekonomiko solidarioez gain, “eremu ez-euskaldun” izendaturiko ikastolen biziraupena bermatzeko modurik onena matrikulazioa dela gogoratu dute Ikastolen Elkartetik. Aurrematrikulazioa otsailaren 6tik 13ea egingo da Nafarroan. Ibaialde ikastolaz gain, eremu horretako ikastolak Fontellas-Tutera-ko Argia; Vianako Erentzun; Irunberri-ko Arangoiti, Zangozakoa eta Tafallako Garces de los Fayos dira.

Otsailaren 5ean, urteurren eta aldarrikapen festa

Ibaialde ikastolak bere 25. urteurrena ospatuko du hilaren 5ean, eta hasieran lehen andereño, presidente eta bost ikasleei omenaldi xume bat egitea baldin bazen ere asmoa, gaur egun, eta egoerak hala behartuta, Ibaialde ikastolak aurrera egin dezan dirua biltzeko baliatuko dute festa, eta baita “seme-alabentzako euskarazko hezkuntza integrala aukeratzten duten gurasoek pairatzen duten hizkuntz-apartheida salatzeko ere”.

Sartagudan egingo den festarako egun osoko egitaraua prestatu dute, 11:00etan hasita. Omenaldiarekin hasiko da jaiak, eta ondoren, Laket, Neu'e Buruben, Norte Apache, Ze esateki!, Bizardunak eta Los Zopilotes Txirriaosen kontzertuak izango dira frontoain. Umeentzako pailazoak izango dira haur gunean, eta antzerkiak eta dantzariak. Eskolako gunean, berriz, Sakanako herri kirolak eta Lezaungo trontzalariak ikusteko aukera izango da. Herri bazkariaren ondoren, bertso saioa eskainiko dute Aitzol Barandiaranek, Aitor Sarriegik, Andoni Egañak eta Maialen Lujanbiok. Horrez gain, kultur etxean Asier Altunaren Bertsolari filma ikusteko aukera ere izango da.

Hezkidetzaren sustatuko dute Emakume abertzaleen topaketa feministetan Leitzan



Hezkuntza jendartearen aldaketarako esparru gisa ulertzen duenez, Bilgune Feministak hezkuntza hezkidetzaila sustatzeko helburuarekin hezkuntzari tarte berezia eskainiko dio **martxoaren 2an, 3an eta 4an Leitzan** egingo dituen Emakume Abertzaleon V. Topaketa Feministen barruan.

Emakume abertzaleon topaketa Bilgune Feministaren hamargarren urteurrenarekin batera etorriko da, eta bertan 10 urte hauetan egindako ibilbidearen balorazioa egiteaz gain, aurrera begira Bilgunearen eskaintza politikoa zein izango den zehazteko unea izan-

go da, eta eskaintza horretan, hezkuntzaren ildoak berebiziko pisua izango du. Topaketen bigarren egunean, hain zuzen ere, hezkuntzako hainbat eragileren esperientziak jasoko dira, mahai-inguru batean eta paneletan. Ondoren, Bilgune Feministak landu duen *Hezkidetzaren lau haizetara* egitasmoa aurkeztuko du eta baita hezkuntzari buruz sortu berri duen bloga ere (<http://hezkuntzasarea.wordpress.com/>).

Hezkidetzaren lau haizetara egitasmoak ikuspegi feminista txertatu nahi du ikastetxeetan, parekidetasunean oinarritutako hezkuntza sistema ez sexista eraiki ahal izateko, “kontzientzia feminista zabaldu eta emakumeon arteko komunikazioa ezinbestekoa ikusten dugulako”. Aurreiritzi sexistak aztertzen hasi eta estereotipoak baztertu eta hezkidetzarekin lotutako gaiez prestakuntzaren garrantzia nabarmendu nahi du, eredu anitzak ezagutaraziz eta hedatuz. Azken batean, egitasmo honen bidez, jendarte parekide, euskaldun eta justuagoa eraiki nahi da, “egun gure herrian, eremu desberdinetan ematen diren eskubide urraketak identifikatu eta pixkanaka gaindituko

dituzten pertsona autonomoak eta osoak heztea da helburua”.

Martxoko lehen asteburuan Leitzan egingo diren topaketa horietan, hezkuntzako mahai-inguru eta aurkezpenez gain, hainbat ardatz landuko dira hiru egunetan. Euskal Herri feminista eraikitze bidean, **Zertarako behar dugu emakumeok eta feministok independentzia?** galderari erantzunez azken urteetan Bilgunearen barruan egin duten eztabaidaren ondorio nagusiak plazaratuko dituzte. Egoera politikoa aztertu eta datozen urteetan Euskal Herriari abiatutako prozesu demokratikoan emakumeen hitza bermatzeko zein tresna behar diren zehazteko, hausnartzeko eta eztabaidatzeko parada ere izango dute topaketan. Horretarako, kanpoko esperientziak ezagutaraziko dira.

Eredu ekonomiko eta sozialaren gaineko hausnarketak ere leku garrantzitsua izango du topaketetan, botere harremanak zein eremutan eta nola ematen diren hausnartzeko parada izango da, eta eremu zehatz batzuk aztertuko dira, hala nola, zaintza, elikadura subiraia, osasuna, prostituzioa eta emakume presoena.

Hezkuntzari dagokion legeriako terminoak jasotuzte hiztegi batean, Nafarroan

Nafarroako Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroak Hezkuntza Hiztegia argitaratu du. Bertan hezkuntzako legeriaren terminoak argitzen dira. Irakasleentzako kontsulta-tresna izateko helburuarekin egin dute hiztegi hau, legeei loturiko kontzeptu eta terminoen erabilera egoki eta zuzena proposatuz, zuzen ulertu eta arauz erabili ahal izateko.

Hezkuntza Departamentuko itzul-

tzaile Paskual Rekaldek eta Javier Tirapu ‘Txapas’-ek egin dute hiztegi hau. Tirapu, helduen irakaskuntzako euskararen irakasle eta EIBZko irakasle zena lana argitaratu aurretik zendu zen. Hiztegia Nafarroako Hezkuntza Departamentuko webgunean dago eskuragai, eta termino bilatzailea, erabiltzeko gida eta lanarekin zerikusia duten loturen zerrenda dago bertan. Terminoak alfabetikoki ordenaturik edota sailaren

arabera ordenaturik ere jaitsi daitezke PDF formatuan.

Hezkuntza sistemak lau erreforma izan ditu azken bi hamarkadetan Nafarroan: 1990, 1995, 2002 eta 2006. urteetan. Eta horiez gain, Nafarroako foru dekretuak. Lege bakoitzak oinarritzeko kontzeptu eta ideia pedagogiko batzuk ditu atzean, eta horiek argitzen ditu hiztegiak.

Eskola kirolean joko garbia eta balio positiboak sustatzeko film laburrak egin dituzte



Kirol-jarduera gazteen prestakuntza osoaren parte izateko helburuarekin eta kirola balio positiboetan oinarritzeko helburuarekin, kanpaina bat abiatu dute Kiroleko indarkeriaren aurkako Euskal Batzordeak eta Eusko Jaurlaritzako Kirol eta Kultura Sailak. Izan ere, alor honetan egin izan diren ikerketek erakusten dutenaren arabera, eskola mailako kirol lehiaketetan ere indarkeria ekintzak eta jarrera bortitzak nahi baino usuago gertatzen dira.

Bederatzi film laburreko CD batek eta liburuxka batek osatzen dute kirola egiteko praktika onei buruzko hausnarketa zabaldu nahi duen material didaktiko hori. Euskaraz dira film labur batzuk eta gaztelaniaz besteak, hala

nola, *Joko garbiaren alde*; *Y tú ¿para quién juegas?*; *Joko garbia denon esku*; *Fair play*; *Oídos sordos edota No es la guerra, es un juego* dira film labur horietako batzuen izenburuak. Kirola aisialdi gogoratzeko Kirolarien dekalogo ere prestatu dute, eta Eskola kiroleko ikusle onen dekalogo ere bai, beti ere hausnarketa bultzatzeko asmoz.

Material didaktikoa Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 700 ikastetxetara, ikasleen gurasoen elkarten federazioetara, erakundeetara eta komunikabideetara bidali dute.

Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoaren Kabineteak Kirola egitea eta kirol lehiaketetako joera bortitzak

gaiari buruzko txostena egin zuen iaz, eta txosten horretan, inkestatuek eskola kirolean indarkeriarik egon ez dadin zenbait konponbide proposatu zituzten: balioetan hezteak; gurasoak kontzientziazteko programak egiteak; kirolarietarako berezko programak prestatzea eta baita jokaera mota horien aurrean zigorrek areagotzeko beharra ere jasotzen zituen txostenak. Proposamen horiei erantzunez egin ditu Eusko Jaurlaritzak ikus-entzunezko material didaktikoa eta dekalogoak, kirola egiteko orduan errespetuari eta praktika onei buruz hausnartzeko, bai ikasleei, irakasleei eta gurasoei ere zuzendua.

Kiroltasuna jokoaren parte da izenburupean egin dituzte 6 eta 16 urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzenduriko bideoak, EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzietako Fakultateko Ikus-entzunezko komunikazioko laugarren mailako ikasleek. Kirola dibertsioarekin, jolasarekin, gozatzearrekin eta adiskidetasunarekin lotzen du ikastetxetan zabalduko den material horrek, baina era berean, kirolean zabaltzen diren beste ezaugarri negatiboago batzuk ere ikus daitezke filmetan, hala nola, lehiakortasun gehiegizkoa, indarkeria, agresibitatea...

Kultura transmisioari loturiko hezkuntza tailerra egingo dute Donostian

Soziolinguistika Klusterrak V. Soziolinguistika Jardunaldia egingo du otsailaren 24an, Donostiako Eureka! Zientzia museoan. Euskal kulturgintza eta euskal kulturaren arteko harremana izango du ardatz, eta tartean Jasone Aldekoak gidaturiko hezkuntza tailerra egingo dute.

Jon Sarasuak egingo du lehen hi-

tzaldi nagusia, Kultur bizitzaren azterketa kualitatiboaren emaitzak, ondorioak eta proposamenak izenburupean. Ondoren, hiru lan saio egingo dituzte. Sorkuntzari loturikoa Igor Elortza eta Gotzon Barandiaranen eskutik; He-dabideei buruzkoa Alberto Barandiaranen eskutik; eta hezkuntzakoa, Aldekoak zuzendurik. Ondoren, Euskal So-

ziolinguistika sariak emango dituzte, eta arratsaldean Eduardo Apodaka irakasleak Euskaltasuna hiritiak. Donostia 2016 aitzakia hartuta hitzaldia eskainiko du. Eguna *Mirian Luki eta Conceppa Probanzaren Euslandia* eman-kizunak amaituko du. www.soziolinguistika.org webgunean eman daiteke izena.

Astaldi eta suspertze soziokulturalerako ikastaroak, Bizkaiko Urtxintxa Eskolaren eskutik



Hezitzaileak trebatzeko beharri erantzuteko sortu zen Urtxintxa Eskola duela 25 urte, orduko mugimenduak euskara, euskal kultura eta Euskal Herria ardatz izango zituen astialdi eskola laiko baten beharra baitzuen. Hezkuntza ez-formala, eskolatik kanpo bada ere, modu planifikatu eta intenzionatu batean gauzatzen den heziketa eremua denez, astialdiaren defentsa egiten du Urtxintxak, eta gaztetxoek kasuan, euren astian ere euren iritziak eta jakin-minak gauzatzen lagundu behar dela diote, haien parte hartze zuzenarekin betiere. “Ez ditzagun ezgauza izateko entretenitu”, diote.

Bizkaiko Urtxintxa Eskolak egitarau zabala osatu du hezitzaileak hain-



bat alorretan trebatzeko. Zazpi ikastaro luze eta bederatzi laburrez osaturiko eskaintza luzatu dute, “jendartearen eraldaketarako eta hazkunde pertsonalerako ahalik eta baliabide gehien proposatuz”. Hala nola, astialdirako begirale eta zuzendari ikastaroez gain, jendarte kultur dinamizatzaile ikastaroez; hezkidetzan eta kulturarteko hezkuntza aditua izateko ikastaro luzeak

antolatu ditu. Ikastaro laburretan, bes-tetik, euskarari, feminismoari, kulturaren nuntasunari, haur eta gaztetxoek sexualitateari edota gorputz adierazpenari erreparatuko zaio.

Hezkuntza formalean eta ez formalean aritzen direnentzat balioetan oinarritutako trebakuntzari dagokion informazio **guztia** www.urtxintxaeskola.org webgunean dago eskuragai.

Ikastolen elkartearen europar kooperatibak Kanbon irekiko du bigarren egoitza

Zazpi herrialdeetako ikastolak biltzen dituen europar kooperatibak Donostian dauka bulego bat, eta aurki bigarren egoitza irekiko du Kanbon, Xalbador kolegioa dagoen eraikinean bertan. Ene Pentzea etxea berritu, eta bulegoak, formazio gelak eta batzar aretoak izango ditu egoitza berriak. Hur Gorostiaga Seaskako zuzendariaren arabera,

egoitza berria Seaskaren eta EHI kooperatibaren ikur bilakatuko da. “Ipar Euskal Herriko ikastolak biltzeko lekua izanen da eta segur gaude noizbait EHIko batzar nagusiak bertan egingen direla ere”.

Proiektu handia izango da Seaskarentzat Kanbokoa. Kolegioak dituen 14 gelak txikiak geratu dira, eta gaur bar-

netegia den eraikina bota eta beste bat egingen dute gela handiagoak lortzeko. Obren finantzazioaren erdia baino gehiago Paueko Kontseilu Orokorretik etorriko da.

Horrez gain, Miarritzen lizeoa, Lanbide Heziketarako eskola eta barnetegi berri bat bilduko dituen proiektua gauzatzeko lanetan ere ari da Seaska.



Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen azken eztabaidak utzi diguna...

>>> HIK HASI UDAKO TOPAKETAK aurtengo saioan HEZKUNTZA FOROA egin genuen. Bertan, hiru egunez, hezkuntzarekin lotura zuzena duten eta lotura hain zuzena ez duten hainbat lagunek hezkuntzaren gainean hausnartu zuten. Ideia, hausnarketa, kezka eta itxaropen ugari sortu ziren taldean. Baita eztabaidarekin jarraitzeko gogoia ere. Erronkari heldu, eta datozen hilabeteetan ere Hezkuntzaren inguruan aritzeko asmoa dugu. Horretara dator gure Web-atarian plazaratu dugun galdera, eztabaida zabaldu nahian: Zein da hezkuntzari buruzko zure kezka nagusia?

>Curriculumen menpekotasuna

Kataluniako lagun batzuek zioten curriculum ofizialek oso oinarrizkoak izan behar zituztela, eta eskola bakoitzak bere curriculum propioa eraiki behar zuela. Hasieran, arraro egin zitzaidan, baina gerora, praktikan gertatzen dena ikusiz, arrazoia zutela iruditzen zait. Nola landu litezke "konpetentziak" liburuak jarraituz eta haien menpeko bihurtuz? Konpetentziak lantzeko bizitzarekin harreman zuzena dituzten egoerak behar dira. Gauzak probatuz, hanka sartuz, hausnartuz, zergatiak aztertuz eta bide berriak bilatuz lortuko da, bestela zaila dela iruditzen zait. *Luixmari*

>Boterearen erabilerak kezkatzen nau

Ia egunero bortizkeri kasu asko agertzen dituzte komunikabideetan. Boterea duenak, era batera edo bestera, bortizki jokatzeko du. Ez dut inon entzuten boterea partekatu behar denik, boterea egon behar badu, behintzat.

Etxean, gurasoek agintzen dute, gurasoen artean batek besteak baino gehiago; eskolan, irakasleak agintzen die ikasleei, eta irakasleari zuzendaritzak, haiei administrazioak... Eta erlazioak ez dira berdinen artekoak, menpeko erlazioak baizik. Lantegietan, agintariak hartzen dituzte erabakiak, menperatzen dituzten erabakiak... Eta, hala, lagunaren artean ere, beti egon behar du norbait agintzeko. Hain zaila al da paper eta rol desberdinak izan arren errespetuzko eta berdinen arteko harremanak lortzea? Nire ustez, boterea ez egotea litzateke egokiena, berdinen arteko bizikidetzaz izatea, berdin guraso, irakasle, nagusi edo dena delakoa izanda; bestela, ezagutzen dugun ondorioa. Jendartean, beste erlazio mota bat behar dugu, etxetik eta eskolatik hasita. *Mariluz*.

>Adierazpen askatasuna

Eskolak era guztietan adierazteko aukera eskaini beharko luke. Espresso plastikoen lanketari begiratzen badiogu, oso hankamotz gabiltzala esan genezake. Haurrei eta gazteei espresio une horiek izugarri gustatzen zaizkie: musika, dantza, kantua, plastika, antzerkia, gorputz adierazpena... Zenbat lantzen da eta zer helbururekin? Mundu afektiboak izugarriko garrantzia du pertsonaren eraikuntzan eta espresio mota horiek asko lagun dezakete. Gutxi batzuk espresio esparrua era sistematikoan kontuan hartzen badute ere, oro har, oso pobre ikusten dut arlo hori eta gehiago lantzea aholkatuko nuke. *Manu Z.*

Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

>>> Aldizkari honetako editoriala eta gai nagusia bizitzako lehen urteen garrantziaz eta Haur-Eskolek jokatzeko duten paperaz ari dira. Bertan jarri denarekin ados al zaude? Ekarpenean bat egingo al zenuke ?

Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. www.hikhasi.com web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

argitalpenak



Zeraldaren erraldoia

Tomi Ungerer/ Itxaro Borda
IKAS

Behin bazen bakarrik bizi zen haur-jale bat. Haur-jale gehienek bezala, hortz zorrotzak zituen, bizar ziztakorra, alimaleko sudurra eta gani-bet handia. Beti haserre eta gose zebilen. Askaltzeko, haurrak jatea zuen gogokoen. Jateko haurrak gabe geratu da, ordea, Zeralda neskatxa agertu den arte. 8 urtetik gorako haurrentzat. •



Zer ari naiz entzuten?

Liesbet Slegers/P. Ezkiaga
IBAIZABAL

Etxeko txikientzako liburu atsegina. Igarkizun jolas moduan dago eraturik, eta haurrek asmatu beharko dute zer ote dagoen ezkutatuta azal-hegal bakoitzaren atzean. Libe bilduma osatzen du *Zer ari naiz ukitzen?* liburuarekin batera, zentzumenen bidez mundua ezagutzeko bilduma da. •



Lur Planeta Unibertsoan

Material multimedia
NATURGAIA

Astronomiara hurbiltzeko oinarriko ikasmateria, animazio eta jardueraz osatuta eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei eta jakin-mina duen edonori zuzendua. Web-nabigazio erraz baten bidez, unibertsoa esploratzeko ibilbide bat proposatzen digu; horrela, atalez atal, galaxiak, izarrak eta Eguzki-sistema arakatu eta Lur planetaren mugimenduak ezagutzeko ditugu. •



Dragoia

Arrate Egaña/ Mari Mar Agirre
EREIN

Neska txinatarra iritsi berria da. Tokiz kanpo sentitzen da eta anitz tristetu da ikaskide batek iseka egin diolako. Andereñoak, elkarrekin jarriko ditu etxeko animaliei buruzko lan bat egiten, eta han hasiko da bakoitza bereak zerrendatzen. Neskak, berotuta, etxeko armairuan dragoi bat gordetzen duela esango die lagunei. 7-9 urtekoentzat. •



Rita eta zilarrezko txoria

Ramon Olasagasti/ Mikel Valverde
ELKAR

Bere auzoko biltegi zahar batean zerbait izugarri ikusi du Ritak: zilarrezko txori bat. Etxera itzultzean, osaba Danielek kontatzen dio elezahar batek dioenez, zilarrezko txori bat ikusten denean, desio bat eskatzen bada, bete egiten dela. Ritak ez du ezer eskatu eta txotia ikusi nahi du berriro. •



Nola artikulatu jakintza-arloa eta hizkuntza?

EUSKARAREN KONTSEILUA

Ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko proposamenaren ondotik, Kontseiluaren hezkuntzako sektorea osatzen duten bazkideek proposamen hori osatzeko eskariari erantzuteko azken urteotan egindako ekarpenak osatzera dator azken hau. Aurrekoak bezala, liburua Kontseiluan bertan eskura liteke. •

... nora joango gara?

AGERRIA, Zuberoatik zubia eraiki nahian

Agerria dagoen muinoaren gainetik, Maule-Lextarreko herri osoa ikus daiteke. Agerria monasterio izandakoa da; izan ere, 125 urtez salletarren egoitza izan zen, duela bi urte fraideek alde egin eta etxe dotorea hutsik geratu zen arte.

Udalaren betiko asmoa zen Agerriako egoitza eta haren lur- eta baso-eremuak udal ondasun bihurtzea. Horrela, Agerriako jabetza salgai jarri zenean, udalak bereganatu egin zuen. Udala ez zen bakarrik aritu, ordea, Agerria berreskuratzeko: herriko hainbat eragileren eta 200 inguru zuberotarren laguntza izan zuen. Horien guztien diruarekin lortu zuten Agerria Zuberoako herri-ondasun bihurtzea.

Agerria dagoen eremuak 100 hektarea inguru ditu. Egoitza, berriz, oso handia da. Jendea egoteko prestatuta dagoen esparruaren eta alboko eraikinen artean 8.000 metro koadroko hedadura du zoladuraz. Gainera, Agerriako lurretan 97 hektareako baso mardula zabaltzen da.

Maule-Lextarreko jarduera ekonomikoa, Zuberoa osoan gertatzen den antzera, ingurumena babestea ardatz duten ekonomia garatzeko eta jendartea antolatzeke ereduetan oinarritzen da. Eredu horiekin batera, gainera, energia berriztagarrien aldeko apustua egin dute, eta tokiko nekazaritzako produktuak bertan eraldatzeko balia-



bideak garatzen ari dira. Ildo horri jarraiki, Agerriako guneak eredu horiei erantzun beharko liekeela iritzi zioten hasieratik. Horretarako, fraideena izandako egoitza harreragune edo atterpe modura antolatu dute. Hala, Zuberoan bertan ekoizitako produktuen kontsumoa (haragia, barazkiak, gazta eta abar) sustatzeko, beste aukera bat eskainiko luke aterpeak.

Bestalde, Zuberoa euskal lurralde ezezagunenetako bat delakoan dira mauletarrak. Hizkuntza eta kultura bera eduki arren, haurrek eta helduek elkar ezagutzen ez dutela ikusi dute haurren zein helduen artean. Elkarren arteko ezagutza sustatu eta bultzatze-

ko, elkarrekin topo egiteko espazio bihurtu nahi dute Agerria, talde-ezagutza bultzatu eta hizkuntza eta kultura indartzeko. Haur eta gazteekin lan egin nahi zuten, batez ere, euskal curriculum oinarri, hezkuntzak ematen dituen aukerak baliatuta.

Elkar-ezagutza bultzatzeko sustaizaille gisa arituko da Izan Ontsa elkarte. Horretarako, udalak, Agerria aterpea alokatu egin dio elkarteari. Izan Ontsaren egitekoa, beraz, Euskal Herri osoko haur eta gazteei espazio komun bat eskaintzea litzateke. Bere lanean, Zuberoak eskaintzen duen ingurune naturalean eta errealitate sozialean, kulturaren ezagutza ahalbidetuko du.



Inguruko baliabide naturalak ezagutzuz, ikasleentzat (eta baita familientzat, mendi taldeentzat eta abarrentzat) erreferentzia-puntu izan nahi du Agerriak, ingurumen-heziketako programa pedagogikoak burutuz, kirol-ekintzak, abenturak, txangoak, bisita gidatuak, eta abar eginez.

Izan Ontsa elkarteak, bere aldetik, aspalditik ikusia zuen hutsunea bete nahiko luke eskaintza horrekin. Oso ohikoa da ikastetxeek irteerak egitea. Hala ere, irteera horiek ia inoiz ez dituzte Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa helmugatzen izaten. Haien ustez, hori horrela izatearen arrazoietakoa bat talde handiak hartzeko lekurik ez egotea izan daiteke.

Izan Ontsa elkartearen beste asmoetako bat, bisitarien eta mauletarren eta inguruko biztanleen arteko benetako harremana bultzatzea da.

Izan Ontsak harremanak egin ditu Zuberoako elkarte eta eragileekin, elkarrekin egitasmoak sortzeko. Kultura-arloaz gain, nekazaritza-arloa, ingurumenekoa eta naturakoa lantzeko.

Dagoeneko hainbat talde izan dira Agerrian. Inguruko herrietako ikastoleetako hurrekin egun-pasak egin dituzte, eta izan dute elkarren berri. Esperimentzia interesgarriak garatzeko aukera bikaina eskaintzen du komentu izandako etxe eder horrek, dudarik gabe. •

AGERRIA EGOITZA-IZAN ONTSA
64130 MAULE-LEXTARRE
Tel.: 676 946 680
axunolaran@hotmail.com



PROGRAMAK

Izan Ontsak aurkeztuko dituen programek, batik bat, Zuberoa ezagutzea dute helburu. Inguru aberatsak, eta askorentzat ezezagunak, ditu Zuberoak, haien artean: Kakueta, Madalena mendia, Iratiko oihana, Holtzarteko zubi eskegia, eta abar.

Kultura aldetik ere beste hainbat eskaintza ditu. Baditu antzinatik gorde dituen ohiturak, bertakoak direnak; Maskarada eta Pastoralak, esaterako. Xiberoko Botza irratia ere kultura-ekipamendu garrantzitsua da.

Industriari dagokionez, oso herri txikia izan arren, lehen sektoreak, nekazaritzak, garrantzi handia du herrialde horretako ekonomian. Gehien ekoizten den produktua ardi-gazta da. Baserritarrak elkartu egin dira eta kooperatibak osatu dituzte: haiek ikusteko aukera ere izango da.

Ekola bakoitzaren beharrak eta interesak, eta garaia kontuan izanik, programa pertsonalizatuak prestatuko dituzte, hala nola: neguan, ipar eskia Iratin, Issarberan, eta eski alpetarra San Martingo Harrian; eta, udan, ur-ekintzak ibaietan.

AGERRIKO INSTALAZIOAK

Izan Ontsak antolatutako ekintza guztiak aurrera eraman ahal izateko, tokiko begirale euskaldunak dituzte. Sukaldeko martxa eramateko, berri, sukaldari profesionalak.

Logelak: 135 lagunentzako lekua. 40-50 haurrentzako 4 gela handi. Gela bakoitzak komunak ditu.

Taldeko dutxak.

Jangelak: gela balioaniztun handi bat eta beste bi txiki. Bi sukalde profesional.

Gelak: lantegiak egiteko erabilera anitzeko 4-5 gela eta ikasgelak.

Beste hainbat baliabide.

Lau txokotan banatutako ganbara.

Barneko jolas-txokoa, mahai-futbola, ping-pongekoko mahaiak, eta abar.

Mahai-jokoaren txokoa: xakea, damak, partxisak, eta abar.

Dantza- eta musika-txokoa.

Irakurtzeko eta solasaldirako txokoa.

Eliza.

100 hektareako landa-lurra, horietatik 70 hektarea basoa dira.

Kirola egiteko zelaia eta frontoia.

Bilera gelak.



atzeko atetik



Juan Luis ZABALA

IDAZLEA ETA KAZETARIA

Ikasgelako mahai eta aulki guztiak amorruez eta ahalik eta indar handienez elkarren kontra bultzatu, nahastu eta zilipurdikatzeko ametsak bizi izan ninduen garai batean, ikasgela guztia hondakindegri baten antzeko anabasa zentzugabea bilakatu arte. Hori egiteak, berehalako plazerarekin batera, katarsi terapeutiko bat ekarriko zidan seguru asko. Ez nuen, ordea, une egokia aurkitu horretarako. Ez nintzen inoiz ausartu.

Baretu zaizkit garai bateko amorrutik oldarkor haiek. Herritar ustez zentzudun eta ustez arduratsua naiz orain, etxekook geurea sentitzen dugun eskola batera doan lau urteko mutil koxkor baten gurasoa.

Eskola, etxe eta atzerri

Zer gertatuko da, ordea, semea ikasgelako mahai eta aulki guztiak amorruez eta ahalik eta indar handienez elkarren kontra bultzatu, nahastu eta zilipurdikatzeko ametsak bizitzen duenean, ikasgela guztia hondakindegri baten antzeko anabasa zentzugabea bilakatu arte? Oso litekeena baita une hori iristea, orain ez bada gero, bihar ez bada etzi.

Eskola tiraniko eta errepresiboa egokitu zitzaigun guri umetan. Gogoan daukat Don Vicente nola oldartu zitzaion larderia doilor zitalez makilarekin kolpeka ikasle bati huskeria bategatik, edo Don Alfonsok nola jarrarazten zizkigun eskuko eriak batuta eta gora begira, egurrezko erregelarekin jota min emateko.

Irekiera urteak izan genituen gero, eta institutu garaian aurrez irudikatzerik ere ez genuen askatasuna ezagutu genuen. Orduantxe izan nuen nik, hala ere, adinagatik seguru asko, eskolaren aurkako amorrurik eta gorrotorik handiena, noiz eta justu eskola inoiz baino neureago zenean.

Orain oso bestelakoa da eskola, baina batez ere oso bestelakoa da eskolaz dudak ikuspegia. Gurasoarena. Semea eskolara gustura joan dadila nahi dugu, adiskideak egin ditzala, ez dezala irakasleekin arazorik izan. Bakea nahi dugu, eskola maita dezala, eskolan denen lagun izan dadila. Eskolaren izena idatzita daukan txandala ere erosi diogu barren!

Urrutirago joan gabe, joan den aste-ko egun batez harriduraz ikusi nuen neure burua semea eskolara joan nahi ez zuelako amorrarazita. Gero pentsatzen egon nintzen oraingo nire zaputz hauek huskeriak izango direla seguru asko geroago etor daitezkeen aldean, eta prestatuta egon beharko dudala, gogoan izan beharko dudala neu ere umea izan nintzela lehenik, nerabea gero, eta ikasgelako mahai eta aulki guztiak amorruez eta ahalik eta indar handienez elkarren kontra bultzatu, nahastu eta zilipurdikatzeko ametsak bizi izan ninduela garai batean, ikasgela guztia hondakindegri baten antzeko anabasa zentzugabea bilakatu arte.

Osloko Unibertsitateak egindako ikerketa baten arabera, nerabezaroan eskolatze aldia luzatzeak mesede egiten die gaitasun kongnitiboetara helduaroan.

amazings.com



Ume-eramaileak eta Haziera
Portabebés y Crianza



Laura Gutman

Donostian

Otsailaren 21ean, asteartea,
17:30etatik 20:30etara **Donostian**

MEITAI MAITIEK "*El poder del discurso materno*" titulua duen Laura Gutmanen hitzaldia antolatuko du, gure gizarteari amatasun, haziera eta familia loturetan mundu mailako espezialista den pertsona gerturatzeko intentzioz.

Irakasle, maisu, hezitzaile, bitartekari, mediku, psikologo, gizarte langileak, emagin, doula, erizain, politikoa, pentsalari, aita eta ama, mundu hobe baten alde egin nahi duen oroari zuzendua.

3 orduko HITZALDIA

Bi orduko azalpena eta ordubete publikoak egiten dituen galderak.

Laura Gutmanen liburuak salduko dira, azkena barne, "*El poder del discurso materno*", oraindik dendetan ez dagoena.

Hitzaldi amaieran Laura Gutmanek liburuak sinatuko ditu.

Laura Gutman-i buruzko informazio gehiago:
www.lauragutman.com.ar

SARRERAK EROSTEKO

Tel> 627 418 907

Tel> 635 700 986

@ > info@meitaimaitie.com

www.meitaimaitie.com

MEITAIK BANDOLERAK

ESTALKIAK MOTXILAK

FULARRAK MUSELINAK

OIHALEZKO PARDELAK

OSAGARRIAK JOSTAILUAK



konfiantzan IKASTOLA



www.ikastola.net